

# Brasilgo euskaldunak. Historia ezezagun bati gerturatzea / Los vascos de Brasil. Aproximación a una historia desconocida\*

(The Basques of Brazil. An approximation to an unknown history)

Ormazabal Insausti, Estebe  
Nafarroa Etorb., 27 – 4. A. 20200 Beasain  
estebe44@hotmail.com

BIBLID [1137-4447 (2004), 13; 55-137]

Jaso: 04.05.04  
Onartu: 04.05.25

---

*Zerk bultzatu zituen eta egun gaituen, euskaldunak Brasilerantz, jakiteko gogoz egindako lan honetan; hainbat pertsonak bizitza eta emozioak agertu dígute. Aurrerapauso bat da, Brasilgo euskaldunen historiaren osakuntzan, gogoia ikusmira eta irrika besteengan sortu nahian.*

*Giltza-Hitzak: Euskaldunak Brasilen.*

*Saber cual fue y sigue siendo el motivo del viaje al Brasil para muchos vascos y vascas, ha sido el deseo principal de este trabajo. Muchas personas nos han manifestado aspectos de su vida y emociones personales. Consideramos que es un paso hacia adelante en el afán de completar la historia de los vascos de Brasil, al mismo tiempo que deseamos despertar en los lectores del mismo, curiosidad y entusiasmo.*

*Palabras Clave: Vascos en Brasil.*

*Le souhait principal de ce travail a été de savoir quel a été, pour beaucoup de Basques, le motif du voyage au Brésil aussi bien dans le passé que de nos jours. Nous avons reçu de nombreux témoignages de personnes qui ont voulu nous communiquer des aspects de leur vie et leurs émotions personnelles. Nous considérons qu'il s'agit d'un pas en avant la recherche historique concernant ce sujet et en même temps nous désirons faire naître la curiosité et l'enthousiasme chez les lecteurs.*

*Mots Clés: Les Basques au Brésil.*

*Saber qual foi e continua sendo o motivo da viagem ao Brasil para muitos bascos e bascas é o desejo principal deste trabalho. Muitas pessoas manifestaram aspectos de sua vida e emoções pessoais. Consideramos que é um passo para a frente no afã de completar a história dos bascos no Brasil e, ao mesmo tempo, desejamos despertar nos leitores curiosidades e entusiasmo.*

*Palavras Clave: Bascos no Brasil.*

\* Lan honek Eusko Ikaskuntzaren 2002 urteko ikerketarako laguntza jaso du

*“Baina ... ba al dago euskaldunik Brasilen? Horrelaxe erantzungo dizu edonork Brasileko euskaldunetz galdetzean”*

O. Álvarez Gila, E.H.U. Gasteiz

## **SARRERA GISA**

Beste hainbat euskaldun bezala, nik neuk ere aita Anchieta ondoan (1553an heldu zen Brasileran) Brasileran heldu zen hurrengo euskalduna nintzela uste nuen. Ala ere zein izango zen nire harridura egun batean nire erantzungailuan, eta euskaraz, Xabier Harlouxetek utzitako mezu bat entzun nuenean! Bazen behintzat beste euskaldun bat gertu! Ondoren ni baino lehenago heldu ziren euskaldunen berri jakiten joan nintzen, Euskal Etxea ezagutu eta bertako pertsonaiek beren bihotzak eta biziak zabaltzen zizkiguten arabera, geroz eta gehiago, historia hura nolabait gorde eta zabaltzeko beharra ikusten genuen. Eta honela hasi zen gure bidea, lehenengo Xabier berak eta neuk, eta ondoren Arantxa Ugartetxerekin: Brasiletaz maitemindurik dagoen euskalduna, historia hau kontatzeko bideak erakutsi eta indarra eman diguna.

Badira bai Brasileko lur hauetan hainbat eta hainbat euskaldun: pilotari, arrantzale, enpresari, misiolari, iheslari, abentura zale, militar, artista... ezagunak batzuk eta ezezagunak gehienak. Zerk bultzatu zituen Brasilerako bidea hartzera? Zergatik izan zen Brasil aukera? Zeintzuk ziren asmo eta ametsak? Nolako izan zen errealitatea? Nola bizi zuten euskalduntasuna herritik hain urrun? Galdera hauei erantzun bila, hainbat pertsonen bizitza eta sentimenduetan arakaturik eusko-brasildarren sentimenduak nolabait argitzen saiatu gara. Gure nahia, altxor honi argi pixka bat ekarri, bildu, gorde eta zabaltzea izan da, euskal historiaren zati hau berreskuratuz. Ni neu ere etorkina izanik lur gozo hauetan, nire buruari galdera berdinak egiten dizkiot eta beharbada erantzun horren bila ekin diot lan honi.

Ni neu ez naiz historialaria eta beraz, akats historikoak aurkitu nahi dituenak erreza izango du lana. Lan hau *“amateur”* bezala egin dago: gogo handiz eta maitasun askoz. Bestalde, idatzi honetan azaldu ez direnei edo ahaztuak sentitzen direnei, barkamena eskatzen diet ezinezkoa baita herri oso baten historia lerro gutxi hauetan isladatu.

Beraz bidea zabalik dago gure atzetik Brasilgo euskaldunen historian sakondu nahi dutenentzat, eta dudarik gabe, guk bezain gune ahantzeginak izango dituzte sari bezala.

Eskertu nahi nituzke:

Nire gurasoak, euskal sena sortu zidatenak. Serafina eta Haritz, pazientzia eta indarragatik. Xabier Harlouxet eta Cristina Barreto, elkarrekin hasi genuen bidaia hau. Paki Roncero eta Blas Belmonte, São Pauloko konexioa. Arantxa Ugartetxea, lagun, irakasle. Eta beren bihotzak, bizitza, intimitatea eta etxeak

zabaldutuz dizkidaten hainbat eusko-brasildarrei, eta aipatuak izan ez diren beste askori, historia hau beraien baita.

## 1. HASIERA BATEAN

*“No Brasil, uns chegaram antes, outros chegaram depois e muitos continuam chegando e ajudando na construção de uma nova sociedade nos tropicos”*

Antônio Sylvio Cunha Bueno (1918-1981)

1500. urtean *Pedro Alvares Cabralek* Indietarako bidea hartu zuen 13 itsasuntzi eta 1.200 marinelekin *Vasco da Gamak* bere aurretik egindako bideari jarraituz. Ala ere, Ekuadorreko itsas korrante indartsuek bultzaturik nahi baino mendebalderagorantz egin zuten, eta Apirilaren 22an gaur egun Brasil bezala ezagutzen dugun lurretara heldu ziren, zehatzago *Porto Seguro*-ra. Hau da historia ofizialak kontatzen duena, ala ere, badirudi garai hartan Portugalدار eta Espainolek bazutela lur haien berri, eta Pedro Alvares Cabralen bidaiak objektibo zehatza zuela. Lurreratzean, kostaldean bizi ziren *Pataxó* indioen ongi etorria jaso zuten, eta bertan bederatzi egun egin, gurutze handi bat eraiki eta pau-brasil zuhaitzaren enbor batzuek kargatu ondoren, *Veracruz*-eko (Benetazko Gurutzea) lurak atzera utzi eta bere bidaiara jarraitu zuten indietarantz.

Portugesek, europarrek munduko beste hainbat tokietan bezalaxe, Brasilgo biztanleengan izan zuten inpaktu eta eragina tamalgarria izan zen: animalia bezala ehizatuak lehenengo, esklabu bezala erabiliak ondoren, jesuita eta beste batzuk kristauturik beren kultura galdurik, europarrek ekarritako gaitzak jasan eta kolonoen esku lurak galdu ondoren, borroka edo ihesa geratu zitzaizen alternatiba bakar bezala. Portugesak iritsi zirenean, nazio indigena desberdin guztiak elkarturik, 5 miloi inguru indigena bizi zirela kalkulatu da. 1950ean 150.000 besterik ez ziren geratzen, 200 nazio eta 180 hizkuntza desberdinetan elkarturik.

Ondorengo 30 urteetan portugesez ez zuten interes handirik azaldu *Veracruz*-eko lur berria kolonizatzeke, izan ere, Afrika eta Asiak europar merkatuarentzako eskaintzen zituzten aberastasunen ondoan, ohian basatiez estalitako lurak bakarrik azaltzen ziren lur berri hauetan. Ala ere, pau-brasil zuhaitzetik ateratako tinta gorriak merkatari portugesez batzuen interesa piztu zuen, eta honela hasi zen zabaltzen Portugal eta Brasilen arteko merkatalgo bidea. Merkataritza hau indioen eskulanean oinarritua zegoen: merkatariak aizkora eta labanen truke pau-brasil enborrak jasotzen zituzten, eta honela jarraitu zuten XVI. mendearen erdi arte, kolonia berriaren esportazioa gai bakar bezala eta lur berriari azken batean izena emanaz (Pau –brasil zuhaitzaren enborra su txingar kolorekoa da, “brasa” portugesez, eta hemendik Brasil izena). 1531n Portugaleko *João III.* erregeak lehenengo kolonoak bidali zituen: *Martim Alonso de Souzak* gidatutako bost itsasuntzi eta 400 pertsonaz osatutako eskifaia kostaldea ongi arakatu ondoren, São

Vicenten (gaur egungo Santoseko portutik gertu) eraiki zuten lehenengo kolonia 1534an.

Kolonizatze lehenengo urte hauetan militar ugarik parte hartu zuten, hauen artean Portugaleko erregearen zerbitzuan zebilen *Domingo Arios de Aguirre mor kapitaina*, 1548an Bahian azaltzen da eta, Brasilen, nik aurkitu dudana, euskal jatorriko norbaiten lehenengo erreferentzia. Beste euskaldun batzuen presentzia aipatzeko *Pedro de Urzua* eta *Lope de Aguirre* famatua dira, Maranhão ingurura egin zuten espedizioa urre bila garai berdinean. Ala ere beren intentzio kolonizatzaileetatik baino harrapakarietatik gertuago zegoen. Kolonizazioa ez zen erraza bertako indio borrokalari, giro heze eta beroa, natura babesgabe, basati eta gaixotasun tropikalen aurka. Honela pasa ziren ondorengo hamar urteak kolonizatze esfortzu handirik egin gabe zailtasun guzti hauen aurrean, ala ere, Brasilekiko beste europar potentzien interesa handitzen ari zela ikusirik, 1549an Portugaleko erregeak *Tomé de Sousa* bidali zuten Brasilgo lehen gobernadore izateko, boterea zentralizatu eta kolonizatutako lur urriak ziurtatu eta antolatzeko. *Bahia de Todos os Santos* (Santu guztien badia) izan zen hamar unti eta 1.000 kolonoen helmuga, eta handik gertu, *Salvador da Bahia* sortu zuten, Brasilgo lehenengo hiriburua. Eskifaia soldadu portugesez, erbesteratu, kristau berri (judutar konbertituak) eta sei jesuitek osatzen zuten.

## **Euskaldun Jesuitak Brasilgo kolonizazioaren hasieran**

*“Uma obra sem exemplo na historia”*

Capistrano de Abreu, *Capitulos de Historia Colonial*, Rio, 1928

*“Na desintegração da cultura indígena a ação dos jesuitas foi na medida em que ela é inerente a toda atividade civilizadora, a toda transição violenta de cultura, provocada pela influência de agentes externos. Onde os inácianos se distinguiram dos outros -leigos e religiosos- foi, isso sim, na maior obstinação e na eficácia maior do trabalho que desenvolveram. E sobretudo no zelo particular com que se dedicaram, de corpo e alma, ao mister de adaptar o índio à vida civil, segundo concepções cristãs”*

Sergio Buarque de Holanda, *Cobra de Vidro*, São Paulo 1944

1557an Portugaleko *D. João III.a* hil zenean, urte bete lehenago hil zen *Loiolako Inazioren* hitzetan “Jesusen Lagundiaren aita eta babeslea” desagertu zen. Ia ho3stautasun” zabalte lana. Portugaldarren kolonizatze lanetan beti zuten bere tokia jesuitek, eta Brasilgo kasua ez zen salbuespena izan. 1549an kolonizatze proiektua seriooki martxan jarri zenean eta lehenengo espedizio handia *Salvador da Bahia* eraikitza heldu zenean, han zeuden lehenengo 6 jesuitak. Bere misioa: indioen kristautze lanak hasi eta kolonoen semeen hezkuntzarako egitura eraikitzea.

Jesuiten aktibitatea handia izan zen urte hauetan Brasil guztira hedatuaz eta kolonizatze espedizio guztietan parte hartuz. Indioen kultura galtze eta kristautze lanetan ere oso aktiboak izan ziren. Alde batetik, bertako hizkuntza hedatuaren (tupi-guarani) erabileran aitzindari izan ziren eta horrek indio askoren konfidantza irabazteko erraztasuna eman zien. Bestetik haurrekin egiten zuten bere lana: haurrak beren gurasoetatik urrundu eta hezkuntza europear-kristau bat eman ondoren, beren tribuetara bueltatzean gurasoen eta zaharragoen kulturarekin talka izugarria sortzen zen, honela, indioen kultura bere oinarrietan deuseztuaz.

Jesuiten ondoren beste orden erlijioso asko heldu ziren: karmeldarrak 1580an, beneditarrak 1581ean, frantziskotarrak 1585ean eta beste batzuk. Ala ere, inaziotarrak, beren lanaren garapenaren tema eta eraginkortasunean bereizi izan ziren beste guztietatik. Eta batez ere, indioak bizitza zibilerako egokitzeko egin zuten lanean, beti noski, mendebalder-kristau ikuspuntu batetik

1549ko lehenengo bidaia handian heldu ziren Jesuiten artean, behar bada, Brasilerako heldu zen lehenengo euskalduna aurkitzen zen: *José de Azpilicueta Navarro* nafarra. Murrizketan jaioa 1521 inguruan, Salvador da Bahian denboraldi bat egin ondoren *Porto Seguron* urteak egin zituen indioen kristautze lanetan bereiziaz. Kuriositate bezala, jesuiten buru zen *Nobrega* aitak eskutitz batean dio, nola Azpilicueta aitak, indioen hizkuntza ikasteko eta erabiltzeko erraztasun handia azaldu zuen, bere ustetan, “bizkaitarra” (biscainho) izanik, indioen hizkuntza eta nafarrarena “antzekoak” zirelako. Barne aldera egin ziren hainbat espedizioetan parte hartu zuen aita “bandeirante” honek, indio nazio desberdinekin kontaktua eginaz eta urteetan bere artean biziz. 1557ko Apirilaren 30ean hil zen *Porto Seguron*.

1553an *José de Anchieta* (Tenerife, 1533 – Reritiba, 1597), euskaldun jatorriko jesuita kanariar gaztea heldu zen, “brasilgo apostolua” bezala ezaguna. Bere aita, *Juan de Anchieta* Azepeitiarra, Gipuzkoako familia noblekoa zen. Carlos V. arekin arazoak izan ondoren Kanariar irletara joan zen eta bertan ezkondu zen *Mência Diaz de Clavijo y Llaenarekin*. Coimbrako Unibertsitatean ikasi zuen eta 1551ean jesuita egin ondoren, 19 urterekin Brasilerako heldu zen. Antonio Nobregarekin batera 1554an Piratiningan Eskola bat sortzen dute, urte batzuk geroago São Paulo izango denari hasiera emanez.

Bi urte ondoren Tupi hizkuntzaren lehenengo gramatika idatzi zuen (“*Arte da Grammatica da lingua mais falada na costa do Brasil*”), antzerki idazle, poeta eta kronikalari, irakasle eta zuzendari izan zen Bahia, Espiritu Santo, Rio de Janeiro eta São Paulon sortu zituen eskoletan eta Estatu horien hiriburuen eraikuntzan parte hartu zuen. Frantziarren aurkako gerratean ere parte hartu zuen Guanabaran (1567), Tamoio indioen esku bahitua egon zen denboraldi luzez bake negoziaketak aurrera eramaten zituzten bitartean. *Reritiba*n (gaur egun *Anchieta*) hil zen 1597an eta 1980ean beatifikatua izan zen.

1572an berriz *Inacio Tolosa* jesuita heldu zen Salvadorrera, bertako jesuiten eskolako errektorea eta Brasilgo jesuiten gidari (provincial) izan zen.

1637an *André de Artieda* eta *Cristovão Acuña* jesuitak Quitotik Solimões ibaian behera Paráraino heldu ziren.

## 2. BANDEIRANTEAK

Kolonizatzaileek laster nabaritu zuten lurra eta giroa azukre kainabera aldatzeko oso egokia zela. Bestalde, garai hartan, produzitutako azukre guztia europar merkatu gosetiak erosten zuen, hasiera batean botika bezala erabiltzeko eta geroago jaki guztiekin nahasteko, ardoa tartean, gozagarri bezala. Handitzen ari zen azukre produkzioari aurre egiteko eskulan beharrean aurkitu ziren portugesez kolonoak eta horretarako indioak esklabu bezala erabiltzen hasi ziren. Kostalde guztian indioen erantzuna berdina izan zen: hasiera batean portugesei ongi etorria eman zieten eta jana eta lurra eskaini. Ondoren mesfidantzaz ikusten hasi ziren lurrik onenak hartu eta beren ohiturak errespetatzen ez zituzten atzeritar haiek. Eta azkenik, lana esklabutza bilakatzen hasi zenean indioek borrokari ekin zioten.

Esklabu indiar merkataritza Brasilgo bigarren “produkzioa” bilakatu zen. *Bandeira* izeneko taldeak (bandera baten atzetik ibiltzen zirelako, gehienetan motibo erlijiosoekin) osatzen ziren indioen ehizara barne alderantz espedizioak antolatzen. *Bandeiranteak* (Bandeira hauen partaideak) portugesez militarrek, indio eta portugesez mestizoak, indioak eta erlijiosoak izaten ziren, eta esklabu indioen ehizaz gainera, Portugaleko koroarentzako lurrak konkistatu eta pixkanaka Brasilgo barnealdea arakatu eta kolonizatuz joan ziren. Bere ausardia, bere basakeriaren parekoa zen, ala ere, bere alde esan behar da, gaur egun Brasilek duen aurpegiaren sortzaileak izan zirela: barnealdeko lurretara ausartu ziren lehenengoak, lehenengo hirien sortzaileak eta indioekin nahasturik, “caboclo” deritzon giza taldea osatu zuten: indioen lurrekiko jakituria jaso eta zuri zibilizazioarekin zubi. Brasilgo kolonizazioa burutu zuten oihanaren erdian edo edozein biztanle gunetik urrun, lehenengo komunitateak osatuz.

Bandeiranteak ugari izan ziren eta gaur egun Brasilgo historian heroi bezala azaltzen dira esklabu zale, diamante eta urre zale hauek. Famatuen artean euskal jatorriko *André de Zuniga* azaltzen da. Miranda ibaiaren inguruan XVII. mendean ibili zen bandeirante moduan eta Sorocabako hiriaren fundatzailetako bat da. 1687. urtean hil zen. *André de Artieda* fraide euskalduna (*Ordem Calçada de Nossa Senhora das Mercês*), Perutik etorri zen eta Belemen (*Pará*) kokatu zen. Beste erlijioso batzuekin batera, 1635. urtearen inguruan *Pedro Teixeira* kapitainaren Bandeiran parte hartu zuten *Amazonia* ibaiaren barne. Jesuitak, beren kristautze interesak aurretik, indioak babesten saiatu ziren. Horretarako misioak sortu zituzten indioak babestu eta kristautzeko. Ala ere, nahiz eta eliza eta erregeak indioen eskrabutza gaitzetsi, inork ez zuen benetan gauza handirik egiten eta Bandeiranteen eskuetan edo esklabu lanetan hil ez ziren indioek, europarrak ekarritako gaitzekin hil ziren.

## Azukrearen ziklo ekonomikoa

Azukre landaketak kanpoko laguntzarik gabe eusten ziren eskala handiko produkzio guneak ziren, beren teknologia eta makinez horniturik eta 100dik 150 esklabura erabiltzen zituztelarik. Azukreaz gain ganadua eta beste etekin batzuen laborantza egiten zuten bertako behar guztiei aurre egiteko. 1500 inguruan landaketa jabeak (fazendeiro) esklabu afrikarrak erabiltzen hasi ziren. Indioak baino langile hobeak zirelakoan eta europar gaitzei zailduagoak zeudelako. Berehala izugarritzko esklabu komertzioa sortu zen Europarekin hirukia itxiz: Afrikako elefante betortz eta esklabuak, Brasilgo azukrea eta tabakoa eta Europako luxuzko gaiak. XVII. Mendean zehar beltz afrikarrek indioak ordezkatu zituzten azukre landaketetan. 1600. urtearen hasieran 1.500 esklabu heltzen ziren urteko Afrikatik. 1880ean esklabutza indargabetu zenean hiru miloi t´erdi esklabu afrikar heldu ziren Brasilerara.

Brasilgo nazio eraikuntzan eta brasildar kulturaren sorreran afrikarrek izan duten eragina izugarria izan da bai musika, hizkera, erlijio, elikadura eta beste hainbat alorretan bere zigilu berezia erantsiz eta nahasketaren bidez Brasilgo kultura aberatsa sortuz, nahiz eta gaur egun arte beltzen aurka dauden aurre iritziak handiak izan. Esklabu ontzietan hiltzen ez ziren afrikarrek bizitza motz eta gogorra jasaten zuten azukre landaketetan: lana gogorra eta aspergarria izaten zen egunero 15 edo 17 orduko lan saioak eginez, elikadura ez zen egokia, “jabeen” tratua basatia eta gaitz tropikalek egiten zuten falta zena bizitza laburragoa egiteko. Landaketen jabeak ziren Brasilgo jauntxo, zuri eta beltzen jabe osoak. Esklabuek era askotako erresistentzia azaldu zuten nahiz eta “jabeek” arraza eta erlijio desberdineko afrikarrak elkar nahastu edo familiak sakabanatu eta izugarritzko gogorkeria erabili beren aurka. 1559rako Esklabu ihesaldiak eta matxinadak hasiak ziren. Esklabuek ihes egin ondoren *Quilombo* izeneko bizi guneak osatzen zituzten oihanean barna, zuriak inoiz heltzen ez ziren tokietan, eta askotan, indioekin elkarturik esklabu ehiztarien aurka defendatzeko. *Quilombo* famatuenetako bat *Palmareskoa* izan zen. XVII. mendearen hasieran sortu zen eta 1675erako 200.000 esklabu iheslari eta indio bizi ziren elkarrekin Zumbi erregearen gidaritzapean. Gaur egun Zumbi erregearen irudia beltz mugimendu politikoaren ikono bilakatu da bere zurietikiko erresistentziagatik.

Azukre landaketak izan ziren Ameriketara egin zen lehenengo eskala handiko nekazal produkzio saiakera eta honi esker lehenengo kolonizatze esfortzu handia. Garai hartan Brasilgo azukreak sortu zuen aberastasuna gaur egun petrolioak sortzen duenarekin konpara dezake, eta dena, bai aberastasuna eta bai azukrea Europa aldean desagertu zen.

Nahiz eta Espainia eta Portugalek Tordesillaseko itunean Amerika zatitu zuten, beste europar indarrek ere interes handia zuten Brasilgo lurrunan.

1555ean Frantziarrek *Guanabarako* badian (gaur egun *Rio de Janeiro*) *Frantzia Antartikarra* sortu zuten *Tamoio* indioen laguntzarekin. Borroka odoltsuen ondoren, 1667an *Men de Sáren* gidaritzapean, portugesek,

frantziarrak kanporatzea lortu zuten. Holandarrek ere bere saiakera egin zuten 1630 eta 1654 urte tartean *Pernambuco*, *Sergipe* eta *Maranhão*ko lurak bere menpe eduki zituztelarik, portugesez armadak bidali bitartean. Garai hartan Portugalgo erregearen zerbitzuan hainbat euskaldun etorri ziren brasileraino, gehienak militarrik: Pernambucoko familia zaharren eta garrantzitsuenetako bat *Uchôa* familia da. *Gaspar de Souza Uchoa*, *Ochoa* edo *Uchôa* (*mestre de campo*), *Simão de Souza Uchoaren* semea, 1625. urtearen inguruan kokatu zen Pernambucun. Holandarren aurkako gerratean egindakoak saritzeko hainbat domina irabazi zituen. Errege etxearen kapera, São Vicenteko kapitaniako *mor kapitaina* (1642) eta *mestre de campo* (1652) maila militarrean heldu zen. 1639an *Maria Figueirôa Mendonça*rekin ezkondu eta ondorengo ugari utzi zituzten.

XVI. Mendearen hasieran *Lucas de Agorreta* arrasatearra, bere bi semeekin etorri zen Salvador de Bahiara.

*Pedro Arias Aguirre*, *João Martins de Aguirre* errege kaparearen semea, 1598an São Felipe gotorlekuko (Bahia) kapitaina zen. *Catarina Quaresma* Portugaldarrekin ezkondu eta ondorengo ugari utzi zituen.

*Diogo Arias* (edo *Aires*) *de Aguirre*, aurrekoaren anaia, São Vicenteko gobernadore izan zen 1598an eta Araçoiba eta Jaraguako urre mehatzetarako espedizioetan parte hartu zuen. Santoseko hirian kokatu eta 1613an bertako zinegotzi izan zen.

1600. urtean *Diogo de Onhate* gipuzkoarraren berri dugu, *Campo de Piratininga*ko biztanle da, ondoren São Pauloko hiria sortuko zen tokian eta garai hartan gotorleku bat.

*Bernardo de Aguirre*, Salvador da Bahian jaioa, Pedro Arias Aguirreren semea. Brasili eta erregeari eskainitako zerbitzuegatik São *Thiago Ordenaren* saria jaso zuen 1645ean. Ihes egindako beltzen kokagune edo *mocamboen* aurka ibili zen sarritan.

Rio de Janeiroko familia zaharrenean artean *Garces* eta *Garciatarrak* azaltzen zaizkigu, beharbada euskal jatorrikoak. 1566an *Miguel Garcia* eta 1580an *Bento Garces*, biak Rio de Janeiron kokatuak, ezkonduak eta familia handiekin. 1630. urtearen inguruan berriz *Francisco Navarro* azaltzen da, hau ere Rio de Janeiron.

## Urrearen zikloa

1690ean bandeiranteek *Serra do Espinazon* urrea aurkitu zutenean europarren "El Dorado"ko ametsa berpiztu zen. Berehala urrearen zoramena martxan zen eta Brasilgo zirrikitu guztietatik eta Portugaletik milaka kolono urrearen eta aberastasun erraz baten ametsaren atzetik irten ziren: 800.000 pertsona baino gehiago heldu ziren Portugaletik, esklabuen etorrera handitu zen



eta 1600. urtean Brasil osoan zeuden 300.000 biztanleak 3 miloi t´erdi bilakatu ziren 1800. urtean urrearen zoramena amaitu zenean.

Tartean euskaldun batzuk ere bai, 1696an *Ouro Pretora* heldu zen *Jean de Lannes* edo *Lana* (Baiona, 1675) urre egilearen antzera. *Maria de Jesusekin* ezkondu eta ondorengo ugari utzi zituzten, denak *Lana* bezala ezagutuak, *Minas Geraiseko* familia ospetsuenetako bat osatu zuten. Beti urre egile lanetan, 1742. urtean *Vila Ricako Moneta Etxeko* arduraduna izan zen.

Jendetza mugimendu guzti honek demografia aldaketa handiak sortu zituen eta Brasilgo ekonomia eta antolaketa sozialean aldaketa handiak eragin zituen. Hiri ederrak sortu ziren **Minas Geraiseko** mendietan: *Sabara*, *Mariana*, *Vila Rica de Ouro Preto* (Urre beltzaren herri aberatsa) eta baita era urrearen bidean guztian, Rio de Janeiroko kostalderaino. Urrearen bidea *Paratyko* herrixkan amaitzen zen eta handik Portugaleko bidea jarraitzen zuen. 1776an Paratyn beste euskaldun baten aipamena azaltzen da: *Francisco Angelo de Aguirre*, São Paulon jaioa, artetan maisua eta Paratyko bikarioa.

Merkatari aberatsek etxe eder eta eliza bikainak eraiki zituzten eta brasildar artisauek Amerikar barroko arte obrarik ederrenetakoak sortu zituzten **Alejadinho** eskultorea buru zelarik. 1800 inguruan urrea bukatzen hasi zenean, aberastasun gehiena, berriz ere, Europako jauregi eta banketxeetan aurkitzen zen. Ala ere Minas Geraisen benetako gizarte brasildar baten sorreraren hazia ermetzen hasia zen, “Brasildartasun” sentipena lehenengo aldiz gorputza hartzen hasia zen eta hemendik, independentziaren aldeko mugimendua eta portugesen aurkako lehen matxinadak.

### 3. XIX. MENDEA

1807ko azaroaren 28an, Napoleonen gudaloztea Lisboan sartu bezperan, 40 itsasuntzitan, *Dom João VI.a* eta 15.000 gortesauk Brasilerantz ihes egin zuten ingeles itsasuntzien babespean. Atzerritar gehienak bezala, Dom João, Brasiletaz maitemindu zen eta Napoleon Waterlooko batailan menderatua izan zenean, Portugalera bueltatu ordez, Rio de Janeiro bertan jarraitu zuen. 1816an bere ama, *Dona Maria I.* erregina, hiltzean, Portugaleko errege bihurtu zen, eta nahiz eta bueltatzeko presioak handiak izan, uko egin eta Rio de Janeiro, *Portugal, Brasil eta Algarbeko Erresuma Batuaren* hiriburu deklaratu zuen. Bost urte geroago, presio politikoak ezin gaituz Portugalera bueltatu zen Pedro, bere semea, Brasilgo printze erregeorde bezala utziz. Kondairak dienez, 1822an Pedrok, bere ezpata atereaz garrasi egin omen zuen: “Independência ou morte!” (Independentzia ala heriotza!) eta bere burua Brasilgo *Dom Pedro I.* enperadore bezala jarri zuen. Portugal, Brasilen aurka borrokatzeko ahulegia zen, eta bestalde, ingelesen interes ekonomiko handia zuten Brasilgo independentzian, eta honelaxe jaio zen *Brasilgo Inperioa*. Odol tanta bakar bat ere isuri gabe Brasilek bere independentzia lortu zuen, edo, brasildarrek dioten bezala, Portugalin independentzia eman zioten!

Dom Pedro I.a ezgai hutsa zen politikarako eta 9 urte ondoren boteretik irtetea behartu eta bere seme *Dom Pedro II.*a bilakatu zen enperadore. 1840tik 1890era arte, Brasil hego Amerikako potentzia bat bilakatu zen, egonkortasun politikoa lortuz eta identitate nazionala sendotuz: sistema parlamentari indartsu bati hasiera eman, Paraguairekin gerrate bat izan, Argentina, Uruguai eta Paraguaiko barne gaietan sartu, esklabutza indargabetu eta inmigrazioa eskala handian bultzatuz. Dom Pedro II.ak monarkia deusezteko adina pertsonalitate zuen nazio bat sortu zuen: 1889an, kafe aristokraziak eta errepublikaren aldeko mugimendu herrikoiak bultzaturik, Brasildar inperio zaharkitua desegin eta *Republica Federal do Brasil* sortu zuten. Lau urte geroago enperadorea erbestean hil zen. Hauteskundeak ospatu bitartean militarrek gobernatu zuten lau urtez. Ala ere, bozkatzeko jarri zituzten kondizioen arabera (lurren jabe eta alfabetatua izan) helduetatik %2ak besterik ez zuten bozkatu, eta gauzak ez ziren gehitxo aldatu: azukre baroien boterea gutxitu zen, eta kafe baroi eta militarrena handitu.

### **Esklabutzaren amaiera eta kafearen zikloa**

Nazioarteko azukre merkatua bizkor erortzen hasi zen 1820 inguruan: azukre haziendek lurrik onenak agortu zituzten eta nekazal teknologia berrietan atzera geratu ziren. Azukre esportazioak erortzen ziren abiada berdinean kafearenak gora egiten hasi ziren. São Paulo, Rio de Janeiro eta Minas Gerais-eko mendi hezeetan kafeak ederki ematen zuen eta lurrak agortzen ziren arabera, kafearen muga mendebalderantz mugitzen joan zen, São Paulo eta Minas Gerais barnerantz, kolonizazio uhin berri batekin batera. Eskulan behar handia zeukan kafe laborantzak eta azukre landaketen jaun-esklabu eskema berdina errepikatu zen. Kafe esportazioak izugarri igo ziren XIX. mendean zehar, eta trenbidea eta laborantza mekanizatuaren sorrerak irabazi izugarriak ekarri zituen.

Kafe ekoizpenaren modernizazio honek asko erraztu zuen 1888an eskulan esklabutik eskulan askerako aldaketa. Hurrengo hamarkadan 800.000 europar etorkin, gehienak italiarrak, kafe-sailetan lan egitera etorri ziren. 1890etik 1916ra milioika etorkin (japoniar, alemaniar, espainol, ukrainiar, poloniar, errusiar, euskaldun e.a.) heldu ziren São Paulo eta hegoaldeko estatueta Brasil gaur egun duen aurpegia ematen lagunduz. 1870ean esklabutzaren amaiera ofiziala sinatu zen eskulan berriaren beharrean aurkitu ziren hazienda nagusiak. Honek Brasilgo demografian aldaketa izugarria izan zuen langile atzeritarren sarrerarekin.

São Pauloko Estatuan etorkin hauen etorrera erraztu eta kontrolatzeko *Lur, Kolonizatzeko eta Emigrazio Sailak* koordinaturik (*Departamento de Terras, Colonização e Emigração*) São Pauloko estatuak 1882an *Emigranteen Ostata* (*Pousada do Emigrante*) sortu zuen. Esklabuek osatzen zuten esku lana ordezkatzeko etorkin berezi baten emigrazioa sustatu zen: europar edo japoniar nekazari famili osoak. Europako hainbat herrialdeetan eta Japonian zeuden enbaxaden bidez, nekazari familia hauek beren eskaera egiten zuten eta

aukeratuak izan ondoren, bidaia dohain egiten zuten eta behin Brasilera heldu ondoren, Santoseko portutik São Paulora joan eta bertan, Emigranteen ostatuan geratzen ziren hazienda jabeekin kontratuak sinatu bitartean. Italiar, espainol, ukrainiar, poloniar edo japoniar familien artean hainbat euskaldun familiek ere ozeanoaren beste aldera ausartu ziren bizitza hobeto baten esperotan.

Euskaldun hauentzat bidaia Bilbo, Bartzelona edo Vigon hasten zen, eta hamar eguneko ibilaldi baten ondoren Rio de Janeiro edo Santos-eko portura heltzen ziren. Bertan errolda egin eta trenez Serra do Mar mendilerroa gainditu eta, oihanaren beste aldean, São Paulora iristen ziren. São Paulon Emigranteen Ostatuan egoten ziren hazienda jabeekin kontratuak sinatu bitartean. Espainol jatorriko nekazari asko São Paulo estatuko mendebaldera joan ziren bertan komunitate mardulak osatuz gaur egun *Sorocaba*, *Catanduva*, *Bernardino de Campos*, *Piraju*, *Marília*, *Presidente Prudente* edo *Uchôa* (azken hau euskal kutxu nabarmenarekin) dauden tokietan, hauen tartean euskaldunak aurkitzen ziren: *Braulio Urioste*, 1835ean São Paulora heldu zen, *Cipriano Gorostiza*, 38 urtekoa, eta bere emazte *Polinia*, 30 urtekoa, 1891ean Rio de Janeirotik helduak, *Ramon Aguirre Gorostiza* 1892an, *Eugenio Echegoyen*, 52 urteko nekazaria, *Agueda* bere emaztea eta 25 urteko seme *Lebonio*, 1897an, *Fernando Echerena Saenz* 1900ean, *Abundio Aguirrezabal* 1906an, Bartzelonatik Aquitaine baporean Santoseko portura heldu zen, ezkongabea, Itapirako Antonio Franco Cintra haziendara joan zen, *Ascensio Aguirrezabal*, 42 urtekoa, 1906an heldu zen Santoseko portura Berenger el Grand baporean bere emazte *Agustina* eta 4 seme alabekin, Itapirako Araujo Cintra haziendara joan ziren. Etorkin hauek beste italiar eta espainol jatorriko etorkinekin batera São Pauloko nekazaritza garatzen lagundu zuten, denborarekin hiriak sortuz joan ziren São Paulo barnealdean eta beraiek ere lurjabe bilakatu ziren gaur egun Brasilgo gunerik aberatsenetako bat bilakatuz.

Euskaldun hauek ez zuten inoiz komunitaterik antolatu, segurki kopuruan murrizak zirelako espainol eta italiarren ondoan edo ez zelako Argentina, Uruguai edo Txileko kasuetan bezala gune berean talde handi baten emigrazioari eman (adibidez arrazoi politikoengatik ihes egindako talde bat). Hau guztia, geografikoki zeuden distantziak eta garraio eskasekin elkartzen badugu, euskal emigrazio sakabanatu eta isolatu bat nabarmentzen da. Nahiz eta euskal pertsonai, familia izen eta toponimoak (*Uchôa* edo Irati herriak) agertzen diren, familia euskaldunak bere kasa eta indibidualki ekiten zioten Brasilerako bidaiari garai honetan, eta oraindik urte batzuk itxaron beharko dira São Pauloko hirian euskal komunitatea antolatzen hasteko lehenengo etorkin hauek jarri zituzten oinarrien gainean.

Gaur egun *Araya*, *Baralde*, *Izaur*, *Aguirre*, *Aguerre*, *Barea*, *Estigarribia* edo *Artacho* familia izenak aurkitzea ez da zaila, ala ere, euskaldun hauen ondorengoek ez dute beren euskal nortasunik gorde. Hauek guztiak São Paulo estuaren hazkuntzan lan egin zuten hazienda jabe handientzat edo São Paulo inguruan geratu ziren nekazaritza lanetan garai hartan sortzen ari zen hirian beren etekinak salduz, italiar, espainiar eta portugaldarrekin ezkonduaz eta familia brasildarrak osatuz eta, denborarekin, beren euskal nortasuna galduz.

São Paulotik kanpo garai hartan beste hainbat euskaldun Rio de Janeiro eta beste estatu batzuetara ere inguratu ziren: *Pedro de Aguinaga* (Gipuzkoa 1821, Rio de Janeiro 1858), 1851ean ezkondu zen *Isabel Augusta de Matosekin*. François Eugène Garay, Pernambucora heldu zen 1821ean (atzeritarren erregistroa). *Julian Serrano Chavarrieta eta Exequiela Maria Echarri*, Rio de Janeiron ezkonduak 1836an. *Gervasio Algarate, Gertudres Luiza Ferreirakin* Rio de Janeiron ezkondua 1877an. *Bernard Urban de Bidegoroy* (Dep. Basses Pyrenées, 1810 - Petropolis, Rio de Janeiro, 1862). *Constantina Augusta Larrachague*, 1893an Rio de Janeiron ezkondua *Raul Deocleciano da Silvarekin*. *Joaquim Luiz Sanchez de Larragoiti*, "Sul América Companhia Nacional de Seguros de Vida"ren fundatzailea. Familiak urteetan enpresa aurrera eraman du eta gaur egun mundu osora hedatua dago. *João Bidart Urraty*, 1896an Rio de Janeiron ezkondu zen *Maria Domiciliana da Silvarekin*. Eta beste asko (Mendia, Iriarte, Echeverria e.a.) denak Brasilera heldu ziren bizi hobe baten bila.

### **Uruguaiana: euskal gune bat hego amerikako bihotzean**

Brasilek hegoaldean *Argentina, Uruguai* eta *Paraguair*ekin duen muga zabalak, beti erraztu du alde batetik besterako mugimendua. Muga naturalak ibaiak izanik inongo eragozpenik ez dago mugaren alde bietako biztanleek errez mugitzeko batera eta bestera.

Batez ere Argentina eta Uruguaira etorri ziren euskaldunak errez pasa zuten muga eta asko eta askok Brasilgo hegoaldeko estatuetan (*Rio Grande do Sul, Parana* eta *Santa Catarina*) kokatu ziren. Euskaldun hauen aztarnak nabarmenak dira oraindik euskal jatorriko familia izen ugarietan eta leku-izen batzuetan (*Irati* eta *João Arregui* herrixkak).

Honela Brasilera heldu zirenen artean batzuek aipatzeko:

*Pascoal Ibarra, Pelotaseko* (Rio Grande do Sul) elizan 1791n *Barbara Serenarekin* ezkondu zen. *Bernard Bidegain*, 1813an *Antônia Joaquina de Fonseca*ekin ezkondu zen Pelotasen (Rio Grande do Sul). *Cecilio de Alzaga*, tratularia, 1814an Rio Grande do Sulera heldu zena (atzeritarren erregistroa). *Pedro Ermeta* nafarra, 1814an Montevideotik Rio Grandera (Rio Grande do Sul) joan zen bizitzera (atzeritarren erregistroa). *D. José Victor Alzáa e Ollabe*, 1815ean Uruguatik Paranára etorri zen (atzeritarren erregistroa). *Francisco Arriola* jostuna, 1817an *Povoação do Norte-n* (Rio Grande do Sul) kokatua zegoen. *Julian Gaistarro* eta *Pedro Echave*, 1821ean *Paranaguára* (Paraná) heldu ziren (atzeritarren erregistroa).

*Jean Ibarbururu*, 1835ean *Marie Ibarbururekin* ezkondu eta Rio Grande do Sulen kokatu ziren. Bere alaba, *Domingas Ibarburu* (1838-1903), 1854an *Dom Pedriton* (Rio Grande do Sul) ezkondu ondoren *Garrastazu* familiaren matriarka bilakatu zen.

*José Antonio Garrastazu Odarza* (1820-1885) eta *Domingas Ibarbururen* ezkontzak hainbat ondorengo ekarri zituen. Iloba bat, *Júlia Garrastazú* (1881-1955), *Emilio Medice* (1876-1950) ezkondu eta *Emilio Garrastazú Medici* (1905-1985) *presidentearen* gurasoak izan ziren. Militar eta politikari ospetsua, Armadako General mailara heldu zen eta 1969tik 1974 tartean Brasilgo Errepublikako Presidente izan zen diktadura militarren garaian.

*Jean Andereche*, 1841ean Uruguaitik Rio de Janeirora heldu zen. *Pedro de Alzaga*, 1845ean Argentinatik Pelotasera (Rio Grande do Sul) heldu zen. *D. Filipe de Goycochea* bizkaitarra, Uruguaitik Rio Grande do Sulera etorri eta 1865ean *Joana Vieira*ekin ezkondu zen.

*Elejalde*tarak XIX. Mendearen bukaeran kokatu ziren Porto Alegren, Rio Grande do Suleko hiriburua. Familia honetakoak da *Benito Ilha Elejalde*, *Almerinda de Souza*ekin 1897 inguruan ezkondu eta ondorengo utzi zutenak. *Paulo Franklin de Souza Elejalde* (1901-1959) gurasoak. Sendagilea, Rio de Janeiroko Unibertsitate Nazionalen lizentziatua (1923), Brasilen patologiako ikasketetan aitzindari, Piracicabako Unibertsitateko irakasle, Belo Horizonteko (Minas Gerais) eritetxeko zuzendari eta beste hainbat kargu garrantzitsu bete zituen.

*Luis Felipe de Castilho Goycochea* (1882-1972), nahiz eta Rio Granden jaio, Barra Mansako (Rio de Janeiro) alkate izan zen eta historialari eta idazlea.

*João Geraldo Idiarte*, 1897an Pelotaseko guarden komandantea zen.

*Loyola* familia XIX. Mendean kokatu zen Paranán. Famili honetakoak dira *Agostinho Ferreira de Loyola Antoninako* Batzorde Fiskalaren laguntzaile (1900), *Lauro do Brasil Loyola*, Antoninako Epalea, *Jayme Loyola*, *Jaime Loyola-Della* fabrikaren sortzailea (mate belarra) eta *Arthur Loyola* saltzailea.

Eta hauek bezala beste askok (ugariak dira *Echeverria*, *Aguirre*, *Iturrusgarai*, *Lizarraga* e.a.) urteetan zehar, arazo ekonomiko edo politikoak (Argentina edo Uruguai diktadura militarrek) bultzatuta, euskal jatorriko amerikarrak beti aurkitu izan dute Brasilen ongi etorria eta lasaitasuna eman dien herri bat.

## **Rubens Tellechea, eusko-brasildar abertzale bat**

*Uruguai*ana Rio Grande do Suleko mendebaldean, *Uruguai*a ibaiaren ertzean eta Argentinako mugan aurkitzen da. Bere kokagune estrategikoak bai militar eta bai ekonomikoki garrantzi handia ematen dio Argentina, Uruguai, Paraguai eta Brasilen arteko topa gune bihurtzen baita. 1824an sortu zen hiri honek historian zehar une garrantzitsuak ikusi ditu: *Estigarribia* general Paraguaiarren errendizioa 1835ean eta Erresuma Batuekin adiskidetasun ituna, Dom Pedro II. enperadoreak eta Torntow ministroak sinatua.

Egoera honek hainbat etorkin erakarri zituen Uruguaiara ingurura, espainiar, frantziar, libaniar, portugaldar eta euskaldunak tarte. 1860. urte inguruan Uruguaiara euskal familien esparru bat bilakatu zen, bertan 14-15 euskal familia elkarrekin bizi zirelarik, eta urteetan zehar Brasilgo historian parte aktiboa jokatuko zuten hainbat pertsonaien jaioterri izan zen.

*Rubens Clausell Tellechea* (Uruguaiara, Rio Grande do Sul, Brasil 1917) da euskaldun horien ondorengo bat. Rubens jaunak eta bere familiak beraien etxeko atekak zabaldu zizkiguten, 83 urteko gizaseme honen istorioak entzuteko.

“Nire burua Brasildar abertzaletzat jotzen dut, ala ere, nire arbasoek utzitako euskal senaren harrotasun osoa daukat eta beti Tellechea izena erabili izan dut nire jatorri euskalduna adierazteko, eusko-brasildar abertzale bat naiz!”.

Brasilen, familiaren historia aspaldi hasi zen: Rio de la Plata tik Uruguai ibaian gorantz, Salto del Toro eta Santana de Livramento (Uruguai) pasa ondoren, etorkizunak ametsak eta aukerak bakarrik eskaintzen zituen, eta amets hauen atzetik Astigarragatik (Gipuzkoa) irten ziren *Domingos Tellechea* (Rubensen aitona), *Francisco Tellechea* eta *Ignacio Tellechea* anaiak. *Garrastazu*ekin batera Saltoraino heldu eta han elkarrengandik aldentu ziren: Domingos eta Franciscok Uruguaiara aldera jo zuten Uruguai ibaian gora. Ignacio berriz Curusucuata-ra (Argentina) joan zen. Guzti hau 1865. urtean gertatzen zen, atzean gelditzen ziren Euskal Herria eta familia, aurrealdean ametsak. Beste euskaldun bat ba omen zegoen garai hartan Uruguaiara, *Ochotorena* Hernaniarra, 1860. urtearen inguruan heldutakoa, baina ez zen beste euskal erreferentziarik Uruguaiako euskal komunitatetik kanpo.

Anaiek bertan hoteltxo bat eraiki zuten eta ondoren heldu ziren beste euskal familiak bide berdina eginez: *Lizarralde*, *Urroz*, *Zurita*, *Garrastazu*, *Ormazabal*, *Ugarte*, *Vergareche* eta *Arregui* beste batzuen artean. Laister *Ramona Roteta*, hau ere Astigarragakoa, Domingos Tellechearekin ezkontzera etorri zen, eta hotela saldu ondoren, lur zati bat erosi eta bertan Europatik ekarritako ardotarako “pinaud noir” mahats 16 hektarea aldatu zituzten, dena Uruguaiako Salto herritik idi gainean ekarria, eta denborarekin eskualdeko eta Rio Grande do Suleko estatuto ardo ekoizle ezagunak bilakatu ziren.

“Nire aitona nekazaritzan nabarmendu zen, eta familiako tradizio bat bezala nireganaino heldu zen lurrarekiko maitasun hori, nire bizitza osoa lurrari eta lurren etekinei eskaini diot.

Euskal familien arteko erlazioa estua zen, bai lagun artea eta bai negozioetan ere, adibidez: *Urroz*tarrek hazten zituzten ardien simaurra erabiliaz, *Tellechea*tarrek alpapa aldatzen zuten inguruko abeltzaintzat, hauen artean *Urroz*tarrek. Nire aitona-amonek bost alaba eta hiru seme izan zituzten nire amona alargun geratu arte. Domingos labankada batez hil zuen bizilagun baten morroiak. Garai haietan ez zegoen ez, txantxetan ibiltzerik!. Ordutik aurrera nire amona alargunak eraman zuen familia aurrera, bere presentzia izugarria zen eta gaur egun ere garbi gogoratzen dut matriarkatu harrek zuen indarra. Iganderoko

bazkaria amonaren etxean sakratua zen, eta erabaki garrantzitsu gehienak han hartzen ziren: mahaiaren inguruan eta amonaren aurrean! Oso erlijio zalea zen eta eliza urrun geratzen zitzaionez etxe ondoan bat eraiki zuen, San Miguel eliza, hortik pentsa amonaren izaera! Eta dena euskaraz, amonak ez zuen hitz bat ere portugesez egiten seme-alabekin”.

## **Eustaquio Ormazabal, bisionario bat**

“Eustaquio niretzako osaba zen. Caserosen (Argentina) jaio zen eta nire amaren iloba zenez Uruguaiara etorri lan bila eta gure etxean bizi zen. Inportazio-esportazio etxe batean lan egiten zuen familia alemaniar batekin, eta hauek nahiko diru egin ondoren Alemaniara bueltatu zirenean, negozio guztia berari utzi zioten. Eustaquiok laister negozioa handitu zuen eta beti zebilen han eta hemen ikerketan, langile aparta eta bizia zen.

Garai hartan handik azaldu zen *Pedro Ivanov* izeneko errusiar edo bulgariar bat, hiltegi baterako galdara bat eraikitza etorri zen eta nire aitarekin solasean ari zela, kontatu zion nola Uruguaiako gobernuarentzat petrolio distilategi bat eraiki zuen. Nire aitak Uruguaiaran gauza bera egiteko kapaz izango zen galdetu zion, eta Ivamovek berriz, planoak bertan zituela erantzun zion.

Igandero bezala, familia osoa amonaren etxean bazkaltzeko elkartu zenean, nire osaba Franciscori galdegin zion zer iruditzen zitzaion Ivanoven kontua, eta astelehenean bertan Eustaquio Ormazabalen lantokira joateko eskatu zion errusiar edo bulgariararekin. Eta honelaxe sortu zen *Destileria Riograndense de Petroleo* (1930), Brasilen lehenengo petrolio litroa destilatu zuena, hasiera batean eguneko 300 petrolio barrikarentzat egina eta denborarekin *Petroleos Ipiranga* bilakatuko zena, gaur egun Brasilen dagoen petrolio enpresa handienetako bat. Hasiera batean petrolio Bolibiatik etortzen zen trenez, Baina geroago Librestik ekartzen hasi ziren Brasilgo lehengo oleoduktoa sortu zutenean, ez ziren ez makalak!”.

Rubensek 16 urte zituelarik Uruguaiarako herri koxkorra atzera utzi eta 2.000 kilometrotara zegoen Piracicabako (São Paulotik 100 kilometrotara) unibertsitatera joan zen nekazaritza ikasketak egitera. Garai hartan Brasil osoko eliteek unibertsitate honetan egiten zituzten bere ikasketak, bertatik hainbat ministro eta errepublikako presidente irten ziren. Rubensek *Luis Simões* (Getulio Vargas Fundazioaren sortzailea), *Vitoria Rosseti* edo *Manuel Antonio Vargas* (Vargas presidentearen semea) bezalako jendea ezagutzeko aukera izan zuen. Rio Grande do Sul beti izan da Brasilgo historian zehar politikari eta mugimendu politiko indartsuen sortzaile, gaur egun ere “*gauchoak*” (Rio Grande do Sularrak ezagutzen diren bezala, “*gaucho*” ahoskaturik ) erreferentzia kultural oso nabarmenak dituzte eta beste brasildarrendandik beti nabarmentzen dira janzkera, mate edateko ohituragatik (chimarrão) edo musika eta folkloreatatik. Garai hartan Rubensek *Getulio Vargas* presidentea ezagutzeko aukera ere izan zuen, Uruguaiarako komunitatea ongi ezagutzen zuen bera ere “*gaucho*” zelako, Tellecheatarrek horien artean, bere ardoaren ospea urruneraino heltzea lortu zuten!.

Ikasketak 1939an amaitu ondoren São Pauloko Geografia Institutuan hasi zen lanean. São Pauloko Estatuaren bamealdearen garapenaren hasiera zen. Kafe laborantzaren indarrak bultzatuta (garai hartan Brasilek mundu osoko kafe ekoizpenaren %70 sortzen zuen) Brasilen barneko mugak zabaltzen zihoazen, eta trenbidea eraikitzeke ikerketa topografikoak egitea izan zen bere lehen lana.

“22 urte nituen garai hartan. Sinestezina egiten zait orain, 60 urte ondoren, nola egunak ematen genituen etxe bat ere ikusi gabe, ez herrixka bat ere. Historia egiten ari ginen lehenengo trenbide hura eraiki zenean. Gogoratzen dut gau batean gure dendan geundela gizonetzko bat nola azaldu zen. Erabat arduraturik zegoen emaztea erditzen ari zela eta arazoekin omen zegoen eta gure artean “doktores” bat zegoenez mesedez laguntzeko. Saiatu nintzen argitzen gizonari, delako “doktoorea” ni nintzela, baina nekazaritzan doktore, ez medikuntzan. Ala ere azkenean bere erreguei amore emanen han joan nintzen emakume gajoari nolabait laguntzeko asmoz. Animaliekin nuen esperientzia erabiliz eta jainkoari esker, beste arazorik sortu ez zenez jaiotza lasai izan zen eta dena ongi garbitu ondoren berriz ere kanpamendura bueltatu ginen. Oraindik bizi-bizi dago nire memorian egun hura. Hurrengo goizean gizona berriz azaldu zen umeari nire izena jartzeko baimen eske”.

Lehengo lan haren ondoren Brasilgo barnealde osoa ezagutzeko aukera izan zuen txerri eta oilo granjak eraikitzen laguntzen. Aitzindari lan horretan aritzeak Brasilgo egoera eta garapenaren ikuspegi zabal bat eman zion Rubens Tellecheari eta honela azaldu zitzaion bere herriaren alde lanean jarraitzeko aukera ezin hobea:

“Garai hartan *João Goulart* aukeratua izan zen Errepublikako presidente bezala, bere aita Rio Grande do Suleko lur jabe handi bat zen eta nire aitari ardoa erosten zion aspaldidanik. *Jango* (bere ezizena) eskola garaitik ezagutzen nuen, nire anaiaren gela berdinean ikasi bai zuen, *Figueredo* generala izango zenarekin batera, a zer ikasgela! *Berak deituta Nekazaritza ministeritzan lan egin nuen bost urtez, FAOren laguntzarekin nekazaritzako erreforma prestatzen. 1964ko Kolpe militarrek gure amets guztiak bertan behera bota zituen eta ni São Paulora bueltatu nintzen”.*

Rubens Tellecheak azken 50 urteetan Brasilgo nekazaritza eta abel zaintzaren garapenari egindako ekarpena oso garrantzitsua izan da. Beti teknologia berrien atzetik eta teknologia hauek Brasilgo egoerara egokitzen eta etorkizuneko teknikariak prestatzen eman du bere bizitzaren zati handi bat.

“1970. hamarkadan, 20 pertsonako talde bat nire kontu nuela, EEBB tako gobernuak gonbidatuta bertako oilasko-hazkuntzaren teknologia ikastera joan ginen. Brasilera bueltatu eta teknologia guzti hura gure errealitatera egokitzen saiatu nintzen taldearekin, Brasilgo txoko guztietara hedatuz. Gaur egun, Brasil munduko bigarren oilasko-ekoizlea da.

“*Estado de São Paulo*” eta “*Folha de São Paulo*” egunkarietan ere 50 urtez astero parte hartu du nekazaritza eta abel zaintzaz artikulua idatziz, beti,



Brasilen aurrerapena bultzatu nahian. Nigerian ere lau urtez lan egin zuen pentsu ekoizpena, hegazti-ekoizpena, garagardotarako sorgo ekoizpena eta abel zaintzan lan egin ez eta Kuban ere ibilia da azukre-kainabera hondakinekin papera ekoizteko teknologia ikasten eta hobetzen.

“Nire arbasoen Herria ez dut ezagutzeko aukerarik izan oraindik, baina nork daki egunen batean ...”

Tellecheatarren artean eta geroago, *Juan Remedi Siva Tellechea Echegarai* (Uruguaiara 1950) dago. Matilde Lemosekin ezkondua 1977an. Uruguaiako Kontsula Brasilen. Bere bi amonak euskaldunak, bat iparraldekoa (amaren aldetik) eta bestea hegoaldekoa (aitaren aldetik). Bere hitzetan:

“(...) Bi matriarka estilo ezberdinetakoak baina biak, emankorrak eta familia barruan agintea zutenak. (...) Autonomiaren sentipen pertsonala, familiarra eta nazionala zegoen. Nazionala independentziarekin lotuta, sustraien identifikazioaren ikur bezala. (...) elkarrizketa hau, nire amonei sor diedanaren adierazgarria da. (...) Beraiek saiatu ziren bizitzarako kode etikoak ematen. (...) Eta orain nik zuri galdetzen dizut: emakume euskaldunak nolakoak dira?, nire amonak bezalakoak dira?”.

### **Vergaretxetarrak, saga eusko-brasildar bat**

*Jose Antonio Vergareche Arrizabalaga* (Uruguaiara 1901-São Paulo 2001) jauna zendu zen egunean, hogeigarren mendeko euskal historiaren ohorezko lekuko bat joan zen gure artetik. Benetako Eusko-Amerikar honek, pertsona bakar batean uztartzen zituen brasildarraren gozotasun, adiskidetasun eta gizartekotasuna, euskal senaren zuhertasun eta lan ahalmenearekin. São Pauloko Euskal Etxera inguratzen zen edozein, euskaldun edo ez, bere etxean sentiarazten zuen Brasilgo bihotzean sorturiko euskal txoko honetan. Brasilen jaioa, Euskal Herrian hezia, gerra zibilean parte hartu eta galdu ondoren berriz ere jaioterrira bueltatu zen. Bertan, beste euskaldun talde batekin amets bat eraiki zuten: Brasilen ere bada Euska Herriko zati bat, Gemikako arbolaren bi kume eta guzti, São Pauloko Euskal Etxea.

*Juan Vergareche Intxaurrea*, aita, (Otxandio 1866-Zarautz 1942) gaztetan artzain eta Bizkaiko meategietan lanean ibili ondoren, familiako lagun batekin Uruguaiarataz hitzegin ondoren 1888an itsasuntziz, bere kabuz, Argentinarako bidea hartu zuen. Behin Argentinan, Rio de la Platan gora Uruguaiarara heldu zen. Ordurako beste euskaldun batzuk baziren bertan, horien artean oso lagun bilakatu ziren Tellecheatarrak.

Juan Vergarechek lehenik okindegi bat zabaldu zuen eta geroxeago denetariko janari-denda bat, “secos e molhados” deritzen zaiona. Lan faltarik ez zen eta negozioak ondo zihoazen: inguruko baserritarrei elikagaiak eta tresneriak hornituz, bertatik pasatzen ziren bidaiariekin trukean, euskal komunitate guztia bezala, Jose Vergarecheren bizia zuzendu zen eta urte batzuetan fortuna egiteko

aukera izan zuen. Euskal komunitatea sendoa zen Uruguaiar: komertzari, nekazari eta abeltzainak, eskualdeari oparotasuna ekarri zioten.

Beraz, urte batzuen ondoren, Salto del Toron etxe bat eraiki eta 1900. urtean berriz ere Euskal Herrira bueltatu zen, oraingoan emazte bila. Familiaren laguntzarekin *Eulalia Arrizabalaga Alzuaga* eibartar gaztea ezagutu zuen eta ezkondu ondoren elkarrekin Brasilerara bueltatu ziren. Familia hazten joan zen hurrengo urteetan: 1901ean *Jose Antonio Vergareche Arrizabalaga* jaio zen, eta bere atzetik beste 7 etorri ziren. Negozioak ere hazten joan ziren: “secos e molhados” dendaren ondoan botika bat zabaldu zuten inguruko baserritarrak hornitzeko. Horrela, 1908. urterako familia aberastua zegoen eta denak Euskal Herrira bueltatu ziren negozioa bere kide italiarrari, Pelegrini, utzi ondoren. 1925. urte arte gorde zuen negozioa bere kide eta lagun min zen Pellegrinik. Bost urtean behin Brasilerara bueltatzen zen kontuak argitzera eta bitartean eskutitzez mantentzen zuten elkarrekin negozioa. Azkenean, 1925. urtean negozioa kideari saldu eta ez zen gehiago bueltatu Brasilerara.

### **Jose Antonio Euskal Herrian**

Bien bitartean Jose Antoniok Lekarozen ikasketak bukatu eta Eibarren lanean hasi zen kontulari bezala Balenciaga lantokian, nahiz eta bere aitaren asmoak beste batzuek izan.

Jose Vergareche ameslari bat zen, baina oinak lurrean zituen ameslari bat: bere ideia Brasilgo Hegoaldean, Rio Grande do Sul-eko estatuan argindarra sortzeko mini-zentralak eraikitzea zen. Euskal Herriko orografiaren antza handia izanik, han ere zentral txikiak eraikiko zituen enpresa bat sortu nahi zuen eta horretarako Jose Antonio elektrizitate ikasketak egitera behartu zuen urte batez. Alferrik izan zen eta laster Balenciagan lan egiten hasi zen, bertan geraturik 19 urtez. 100 urte geroago, Brasilen bizi den energia krisiaren erdian, norbaitzuk mini-zentral hauen beharra aipatu dute! On Jose Vergarecheren ideiak aurrera egin izan balute!.

Eibarko kultur eta politika giroan buru belarri sartua ibili zen urte haietan Jose Antonio. Mendizale elkarteko kide eraginkorra eta Batzokiko Diruzain bezala. Eibarko giro politikoa gori-gorian zebilen urte haietan. Alde batetik sindikatu sozialistak eta bestetik EAJko abertzaleak. Bertan Espainiako errepublika aldarrikatu zen eta ondoren Gerra Zibila hasi zenean, diruzain bezala zuzenki nahastu zen arma ordainketa eta gerra garaiko diru mugimenduetan. Garai gogorak izan ziren haiek, fasziztak aurrera egiten ari ziren eta azkenean Bilbotik ihes egin behar izan zuen familia zatiturik. Beagle unti ingelesean Bordelera joan zen eta handik Marsella eta Nice-ra. Pasaporte Brasilarra zuela baliatuz, Uruguaiako enbaixadan Brasileraino joateko baimena lortu zuen.

“1937an, 30 urte ondoren, jaioterrirantz abiatu nintzen, atzean familia eta gerrateak deuseztutako herri eta amets bat uzten nituelarik. Bidaian zehar, tristura handiz, Gernikako bonbardaketaren berri izan genuen”.

## **Berriz ere Brasilen**

Bere aitak ia 100 urte lehenago egin zuen bezalaxe, Rio de la Platan gora Uruguaiara iritsi zen. Uruguai ibaiaren gainean lehengo zubia eraikitzen ari ziren garai hartan, Brasil industrializatzen hasia zegoen eta momentuko hiria São Paulo zenez, harantz abiatu zen gure gizona egun batzuk jaioterrian egin ondoren. Enpresari eibartar ezagun batzuek bazituen São Paulon, 1915-20 bitartean Brasilera heldutakoak. Brasilgo industrializazio bere hastapenetan zegoen eta Eibarren erreminta eta armagintzan lan egiten zuten euskaldun hauek Brasilen ere hantzeko negozioak eraiki zituzten. *Vitorio Areitio San Miguel* eta *Zubizarretak* burdingintzan eta metalezko etxekotesnagintzan ari ziren, *Balbino* eta *Santos Guisasola* anaiek, berriztarrak, arma fabrika bat eraiki zuten, *Bustindui* eta *Lizarriturrik* ere berbera egin zuten. Hauetako asko denborarekin Euskal Herrira bueltatu ziren, beste batzuk berriz brasildarrekin ezkondu eta familia izan ondoren ez ziren inoiz bueltatu eta gaur egungo eusko-brasildar familiak osatzen dituzte.

Jose Antoniok laster aurkitu zuen lana eta brasildarra zenez, ez zuen arazorik izan bizimolde berrira ohitzeko. 1941ean familia etorri zen São Paulora eta bizi berria eraikitzeari ekin zioten denak batera eta ondorengo urteetan brasilgo euskal komunitatean parte aktiboa hartu zuen Euskal Etxeko sortzaile eta bere lehenengo lehendakaria urtetan izanik.

## **4. XX. MENDEAREN HASIERA**

20.mendeko hasiera hau aldaketa sozio-ekonomiko handiz betea egon zen, mugimendu sozialen egonezina handia zen eta matxinada herrikoiak ugariak izan ziren. Biztanlegoa 1889ko 14 milioitik 1930eko 37 milioietara pasa zen eta bere banaketa ere asko aldatu zen, izan ere biztanlego osoa %164 hazi zen, Hegoaldeko estatuetan %275 hazi zelarik, lurralde hau Brasil osoko zentro dinamikoa bilakatzen zela garbi geratuz. Era berean, metropoli handien ezaugarriak zituzten hiriak sortzen hasi ziren, adibidez São Paulo eta Rio de Janeiro, eta bigarren maila batean Belo Horizonte eta Porto Alegre. Garraio eta komunikabideak zabaltzen hasi ziren eta hezkuntza ere hobetuz zihoan pixkanaka.

Ala ere aldaketarik garrantzitsuen aktibitate industrial hazkuntza da: 1907an 3.120 fabrika zeuden Brasil osoan, 149.000 langileekin eta 1930ean 18.800 fabrika eta 450.000 langile erabiliaz, %55 São Pauloko estatuan zeudelarik. Aldaketa guzti hauek gizartean ere aldaketa nabarmenak sortu zituzten, ordurarte klase nagusi ziren lur jabe handiek, industrial eta finantza burgesia berri baten sorrerari paso emanez. Bestalde langilegoa, hasera batean langile atzeritarrez osatua eta ondoren brasildarrez, izugarri hazi zen, batez ere hiri handietan. Europatik zetozen emigrante ugariak sozialismo eta anarkismoaren ideiak sartu zituzten langileriaren sindikatu antolaketa eta politizatzea bultzatuz.

Industrializatzeko prozesu honen ondorioetako bat nekazaritza-espportatzaile batean oinarritutako ekonomia batetik barne merkatura zuzendua zegoen ekoizpen industrial batera biratzea izan zen, Brasilgo sistema ekonomiko osoa aldatu zen. Orokorrean, honelako aldaketa sakon bat aurreko sistemaren krisi baten ondorio bezala sortzen da, eta gure kasuan, 1929ko krisiak, kafe laborantzan oinarritua zegoen nekazaritza espportatzaile sakonki astindu zuen. Urre erreserbak desagertu egin ziren, kafe zakuaren balioa %75era erori zen eta espportazioak %50era. Brasilgo ekonomiak kafe espportazioengan dependentzia osoa zuenez krisi egoera kritikoa bat somatzen zen, baina 1933rako ekonomia berriz ere hazten hasi zen barne industriaren hazkuntzarekin batera.

### **Euskal pilota Brasilen: pasio baten historia**

1928ko Martxoaren 9an, 26 urte zituelarik, *Ricardo Arnau* zestolari brasildarra pneumoniak jota hil zenean, São Pauloko egunkari guztietan azaldu ziren idatziak heriotza honek kirolarentzako eta gizartearentzako izango zuen galera azalduz. Bere joko “elegante e avesso aos trucs” (liraina eta trikimailuen aurkakoa), bere arintasun ikaragarria eta salto izugarriek, garaiko kronika egileen hitzetan, pelotari eta pilota zale brasildarren munduan garai bat itxi zuten.

Ricardo Arnauaren heriotzaren garaian lau frontoi profesional zeuden São Pauloko hirian (garai hartan 2 milioiko hiria): *Frontão Boa Vista*, *Frontão do Braz*, *Frontão Nacional* eta *Frontão Brailleiro*. Astero ospatzen ziren zesta puntako jokoak, gehienetan São Pauloko goi mailako gizarteaz bete beteriko frontoietan. Frontoi profesional horietatik kanpo beste 5 elkartetan jokatu zitekeen pilotan São Pauloko hirian: Clube Paulistano (oraindik bizirik, basamortuaren erdian oasi bat bezala), Clube Corinthians (oraindik frontoi txiki bat gordetzen dute) Associação Atletica de São Paulo, Club Ipé eta Club Banespa. Rio de Janeiro 1895. urtearen inguruan bost frontoi profesional zeuden: *Brasileiro*, *Cattete*, *Electro Ball*, *Lavadrio* eta *Municipal*. Hauetatik kanpo hainbat elkarteetan jokatu zitekeen pilotan, Club Flamengo, Vasco de Gama e.a. Rio de Janeirotik gertu dagoen Niteroi hirian ere bazen *Jai Alai* izeneko beste frontoi bat. Curitiba (Parana estatuko hiriburua, Brasilgo hegoaldean) ere bazen *Jai Alai* izeneko frontoi profesional bat eta Santos-eko hirian 1925ean gutxienez beste frontoi profesional bat bazegoen.

Ricardo Arnau-rekin batera, *Juan Martin Arnau*, *Prudencio Arnau*, *Bertho*, *Helio*, *Carioca*, *Antonio*, *Paulista*, *Americo*, *Martin*, *Gaspar*, *Melchor*, *Ugarte*, *Uria*, *Isidro Iraola Genua*, *Nilo*, *Julio*, *Lorente*, *Ansola*, *Albisua*, *Villabona*, *Marcelo Fernandes*, *Juanito Gogorza*, *Alberti*, *Alberto Munita*, *Zabaleta*, *Manuel Renoir*, *Juan Antonio Fares* beste askoren artean ziren garaiko pelotari ezagunenak São Paulon. Rio de Janeiro berriz beste hainbeste gertatzen zen bertako pelotariekin, eta estatuen arteko txapelketak antolatzen ziren milaka pilotazaleen gozamenerako. São Pauloko pelotariak omen ziren hoberenak “no fidalgo esporte vasco”. Jokoari “cesta”, “pelota” edo “pelá” deitzen zitzaion, eta jokalariei berriz, “pelotari”.

Baina Brasilgo pilotarien historia 1900. urtearen aurretik hasten da. Jakina da pilotari euskaldunak Rio de Janeiroan 1895ean ari zirela jokatzeko eta garai hartako "O Estado de São Paulo" egunkarian datorrenez: "frontoitik kanpora irteten diren pilotek, inguruko etxeetako leihoak eta teilak hausten dituzte, bizilaguneei kalte handiak sortuz". Beraz suposa daiteke pilota enpresari, frontoi eraikitzaile eta pilotari profesionalak 1850. urtearen inguruan Brasil ongi ezagutzen zutela. 1937. urterako brasildar edo euskal-brasildar pelotariak ezagunak ziren pilota mundu osoan eta Cuba, Mexico eta Txinan jokalaria bezala ari ziren. Adibidez *Juan Antonio Fares*, São Paulon jaioa 1915ean atzelari bezala famatua izan zen Mexico eta Cuban 1930. hamarkadan.

Brasildarrek zesta puntari egin dioten ekarpenetako bat, zesta puntak gaur egun duen itsura da: gaur egungo zesta puntak, beren kurba bat batean hasten dute larruzko eskularruaren ondoren, igitai itxura emanez zestari. Aldaketa hau benetan argia izan zen: alde batetik zestaren goialdeko zatia ezabatzen zuten, inoiz erabiltzen ez zen zatia izan ere pilota zestaren erdiraino bakarrik heltzen baita. Eta bestalde pilotaren kontrola errazten zuten goialdetik ihesa zailduz. Ez da erraza jakitea noiz zehazki gertatu zen aldaketa hau, baina 1900. urtearen inguruan gertatu zen. *Pedro Olazabal* zesta egile famatuak dionez 1906-1908 tartean sortu zen hobekuntza hau eta dudarik gabe Brasildik etorri zen. Garai hartan bere aitaren etxera etortzen ziren pelotariak "Brasilgo estilora" egindako zestak eskatzen omen zituzten.

1920-30. urte inguruan zesta puntaren hedapena eta fama Brasil osora zabalduta zegoen, Brasildar eta kanpotar pelotariak elkarren aurka ekiten ziotelarik frontoi profesional ugarietan, jokoa erabat "gizarteratua" zegoen ... 80 urte ondoren, guzti hau gutxi batzuen memorian bakarrik geratu da eta jokoa pasioz betetako jokalaria gutxi batzuek bizirik mantendu dute Brasilgo azkeneko frontoietan.

### **Pilotaren memoria bizirik**

Beste pilotari famatu bat *Isidro Iraola Genua (Tolosa, 1902-1959)* izan zen *Magdalena Iraolarekin* ezkondua. Bere alabak, *Luiza Helena Iraola de Azevedo (São Paulo, 1939)* kontatzen digu nola São Pauloko frontoietan bere bizia ongi baina hobe egiten zuten pelotariak. Ala ere 1930. urtean *Getulio Vargas* presidenteak apustu jokoak debekatu zituenean, milioetako kontratu batekin Shangayra joan ziren pilotan egitera. Shangayko frontoietan izugarriko arrakasta izan ondoren, Gerrate Mundiala zela eta bertako bizitza eroso utzi eta Rio de Janeiroa bueltatu ziren bertatik Miamiara joateko asmoarekin baina gerratearen hasierarekin São Paulon bukatzen dute. Beti ere frontoiak berriz zabalduko zituzten ilusioarekin entrenatzen jarraitu zuten azkenean *Dutra* presidenteak betirako frontoi profesionalak itxi zituzten arte, honekin Brasilgo pilotaren urrezko aroari amaiera emanez.

*Ignacia Teresa Arnau Bengoechea (São Paulo, 1927)* andereak kontatzen digu nola bere aita, *Francisco Luis Bengoechea* eta bere ama, *Maria Cristina Arnau* São Paulon ezagutu ziren:

“Nire aitona-amonen São Pauloko etxea beti pelotari eta pilota kontuz beterik egoten zen. Aitona, *Ramón Arnau*, euskalduna zen, Prudencio Arnau general karlistaren ondorengoa, eta amona, *Teresa Goenaga*, gipuzkoarra. Familia handia izan zuten eta gehienak pilota inguruan bizi izan ziren: *Juan Martín Arnau* (osaba Juanito) pilotaria izan zen joko batean biriketan pilotakada batek jo zuen bitartean. *Prudenciori* berriz, pilotak buruan eman zion eta larriki zauritu. *Ramón*, hau ere pelotaria, Shangayn jokatu zuen. Eta *Ricardo*, Brasildarren artean famatuena eta maiteena, 1928an hil zen pneumoniak jota 28 urte zituelarik. Nire aita 18 urte zituelarik etorri zen Brasilerara, pilotan egitera Boa Vista frontoietan, eta beste pilotari asko bezala, nire amonaren etxean geratu zen”.

1922an ezkondu ondoren, eta Brasilgo pilota munduak etorkizun gutxi zuela ikusirik, 1932an Txinara joan ziren pilotan egitera. Bertan bi urte egin ondoren, 7 urte zituelarik amarekin Brasilerara bueltatu zen. Ez zuten gehiago aita ikusi. Urteak pasa ziren eta Venezuelan zegoela jakin zuen, beste emakume batekin ezkondua eta familia berri bat osatua.

“Nire burua, nahiz eta brasildar izan, euskalduntzat jotzen dut: harro naiz euskaldun odola nire zainetan dudala jakiteaz.. Nire familiako emakume euskaldunak indar handikoak ziren, dominatzaileak, generalak ... ni bezalaxe!.” Bere hitzetan: “Las mujeres vascas son amorosas, madres amantísimas, tienen en las manos y el corazón la medida y hora cierta del cariño y de la represión, por eso el amor ha sido una tónica en mi vida”.

Euskalduntasuna bizitzeko era desberdinak, belaunaldietan barrena, Brasilgo lur zabaletan.

## **Garai gogorak pilotarentzat**

1930ean apustuak debekatu ondoren pilotari profesional gehienak Brasildik alde egin zuten, batzuk Shangay aldera, besteak Miami edo Euskal Herrira, eta urte gutxi barru ez zen frontoirik gelditzen ez São Paulon ez Rio de Janeiron: zinema, etxebizitza edo aparkaleku bilakatu ziren. Eta frontoiekin batera, memoria historikoa galdu egin zen: igandero frontoiak betetzen zituzten pilotazaleek jokoa ahaztu zuten eta gaur egun inork ez daki “pelota basca”, “pelá” edo “frontão” zer den.

Ala ere pilotazale talde txiki batek bizirik mantendu zuten jokoa urteetan zehar *Club Paulistanoko* frontoian. *Marcelo Fernandes* pilotari profesionala izandakoak bertan jarraitu zuen bere heriotza arte pelotari berriak entrenatzen eta era berean frontoia zutik mantentzen. Gaur egun, Paulistanoko frontoia São Pauloko hiriaren patrimonio historikoaren parte da, eta 200ean jasandako berrikuntzekin, beste 100 urteetarako frontoia daukagu!.

*Clube Corinthians*-en ere bada frontoi bat baina bertan frontenisa bakarrik jokatzen dute. Bestalde badira oraindik Rio de Janeiro eta São Paulon esku hutsez gomazko pilotarekin jokatzeke frontoi txikiak, modalitate hau asko jokatzen da Hego Amerika osoan.

## **Eskuz pilota edo bakarrik arriskuaren aurrean**

Larruzko pilotarekin eskuz Brasilgo frontoi batean norbait ikusi ezker, ziurtasun guztiz *Heraldo Biscayzacu* (1942, Ciudad de Carmelo, Uruguai) edo bere ikasleren bat izango da. 61 urteko pilotazale porrokatu honek "pilota eskuan eta ibili munduan" esaldiak gidaturik, 9 urte zituenetik jo eta ke ekin dio Amerikako hainbat frontoietan pilotazale bezala. Uruguaiako euskal txoko batean jaioa, bertan eman zituen bere lehenengo pausoak arraunean eta ondoren esku pilotan. 13 urte zituela poliki ekiten zion eta dagoeneko inguruko frontoi ospetsuetan ari zen jokatzen.

"Nire familia Xiberuatik etorritakoa da. 1870. urtearen inguruan heldu ziren bi anai Montevideora, bata Argentina aldera joan zen eta beste Uruguaiaren geratu zen, ez ziren inoiz berriz elkartu. Familiak Euskal Herriarekin kontaktua galdu zuen 1998. urtean berriz ere Argentinako familiarekin kontaktuan jartzea lortu nuen arte, 120 urte ondoren".

Ameriketara sarridan gertatu ohi den bezala, lehenengo bi belaunaldiak euskaldun arteko Ezkontzak izan ziren, Heraldoren gurasoak berriz aita euskalduna eta ama alemaniar-guarani ziren. Ala ere, euskalduntasun hori beti bere bizitzan gidaria izan da:

"euskalduna izatearen sentimendu hori beti oso bizia izan da eta euskal pilotari diodan maitasunak beti bizik mantendu du. Nire aitak ez zidan inoiz euskararik irakatsi ez eta Euskal Herriaz hitzik egin, baina euskaldun izatearen emozioa pasa zidan ... eta oraindik bizirik dirau, eta nire alabei pasatzen saiatu naiz. Horregatik joan nintzen Euskal Herrira nire sustraien bila, eta bertan, 1630ko hilarrietan nire familiaren izena ikustean sentitu nuena ... zirraragarria da".

Bizitzaren bideek Argentinara eraman zuten eta bertan Eva Escobar-ekin ezkondu ondoren Familia osoa Brasilerara joan zen 1974an. Lanak uzten zion denbora urrian esku pilotan egiten saiatzen zen nahiz eta Brasilen eskuzko pilotaren tradizioirik ez izan. Banespa Clubean gomazko pilotarekin jokatzen duen taldetxo bat aurkitu ondoren bertan entrenatze lanetan hasten da. 1986. urterako taldea erabat handitzen da eta lehenengo barne txapelketa antolatzen dute. 1980. urtean São Pauloko Euskal Etxea ezagutu zuen eta bertako frontoiaren egoera tristea ikusirik Clube Paulistanoko jokalariek, Euskal Pilota Nazioarteko Federakuntza, Eusko Jaurilaritza eta Euskal Etxea elkartu ziren frontoiaren berrikuntza lanak aurrera eramateko. Horrekin inguruko gaztetxo talde bat eskuz jokatzen hasi zen bere begiradapean, nork daki esku pilotako Ronaldinhoren bat sortzeaz ez ote dagoen!.

“Euskal pilotak, eta zehazki esku pilotak nire bizitzan izugarritzko garrantzia du. Ibili naizen toki guztietan beti aurkitu dut norbait jokatzeko eta jokia zabaltzea eta irakasteak, erabateko poza ematen dit”.

## Nazioarteko konexioa

“Nahiz eta Irun ez den tradizionalki pilotazale izan, nire aita azkoitiarra zen eta berak utzi zidan pilotari zaletasuna. Umetatik gogoratzen dut nire burua eskuan pilota nuela. Gerrate zibila garaia Baionan pasa nuen eta han etxe barruan ibiltzen nintzen pilotan, gero, Irunera bueltatzean, egun osoa frontoian pasatzen nuen 22 urterekin ezkondu nintzen arte”.

*Joseito Iraundegi Arrospide* pilotazale bezala definitu ezker ez gara oker izango: ume garaian sustraitutako zaletasun orrek gaur egun ere begiak pizten dizkio pilotaz hitz egiten duenean. Bizitza osoa pilotari eskainia eta pilotaren inguruan pasa duen irundar honek, pilota munduan bere bide luzea Irungo Kurpil Kirolak elkartean hasi zuen. Urteak eman ondoren pilotaren zabalkuntzan lan eginez, Gipuzkoako federazioan lan egin zuen eta ondoren Nazioarteko Federakuntzan. Idazkari orokor bezala (1978). Garai berean “ El Diario Vasco” egunkarian pilota sailean kolaboratzaile bezala ekiten zion. Nazioarteko Federakuntza hazten zen arabera lan kopurua ere handitzen joan zen eta azkenean 1984. urtean, pilota munduan profesional bezala hasi zen lan egiten Federazioko Idazkari Orokor bezala.

“Eta gaur arte jarraitzen dut, naiz eta jubilatuta egon. Azken urte hauetan trinketearen hedakuntzan lan egiten Irungo Ramuntxo Trinkete Klubean lehendakari bezala 1995tik.

Pilotak jende asko ezagutzeko aukera eman dit, eta guztien artean *Alfredo Soeiro*, *Soraya Cuellas* eta *Heraldo Biscayzacuk* leku berezia dute elkarlanean sortu dugun adiskidetasunagatik. Pilotagatik Brasilen egin duten eta egiten ari diren lana izugarria da eta benetan txalotzekoa”.

Elkarlan hau hasi zenetik, São Pauloko Euskal Etxeko frontoiaren berrikuntza izan zen unerik garrantzitsuenetakoa. Eusko Jaurlaritza eta Nazioarteko pilota federazioaren partaidetzarekin frontoia handitua eta berritua izan zen inguruneke pilotari gazteak erakartzeko proiektu baten barne. Nazioarteko federazioarekin hasitako lan honen fruituetako bat *Mikel Bringas* (Donostia, 1969), federazioaren batzorde teknikoko partaideak, 1997an 10 egunez São Paulon eskaini zuen esku-pilotako ikastaroa izan zen:

“Gaztetatik pilota munduan ibili naiz, pelotari bezala eta azken aldirian Federazioaren batzorde teknikoan lanean mundu osoan pilota ikastaroak emanez. São Pauloko ikastaroan oinarritzko teknikak erakusten saiatu nintzen: eskuen prestaketa, pilota mota desberdinak, prestaketa fisikoa e.a. Brasilen maila oso eskasa da, jokia oso gutxi hedatua dago eta gure nahia teknikariak prestatzea da pilota hedatzen joateko. Brasildarrak ahaztuak egon dira urteetan eta benetan txalagarria da nola



bizirik mantendu duten zesta punta eta pilota han! Laguntza oso gutxi daukate federaziotik baina gauzak egiteko izugarritzko gogoia eta pasioa dute. Pilota erresistentzia sinbolo bat da eta horretarako izugarritzko kemenarekin lan egiten dute. Alfredo Soeiroren lana hunkigarria da, euskaldunok baino gehiago maite du zesta punta eta nahiz eta adinean aurrera joan han ikusi nuen jo eta ke pilotan.

Munduan zehar pilotaren etorkizunari buruz kezka handiak ditut: 19. mendean pilotak munduan zuen hedapena eta gaur egun gelditzen diren frontoi urriak ikusiz pena handia sentitzen dut. Pilota euskal kulturaren zati handi bat da eta mundu mailan euskaldunon irudia zabaltzen lagundu duena, irudi oso positiboa gainera. Lan berezi bat, esfortzu politiko bat egin beharko litzateke guzti hau berreskuratzeko. Adibidez trinketearen bidez, garai modernoetara egokituagoa dagoen pilota bat eramanaz”.

### **Frontão Paulistano: 100 urteko pasio baten historia**

1946an frontoiak itxi zirenean pilotari asko eta askok atzerriaren bidea hartu zuten, Shangay aldera, beste batzuk Mexiko eta EEBB-rantz eta Euskal Herri aldean zortea saiatu zutenak ere izan ziren, *Breiler*, Rio de Janeiroko pilotariaren antzera. Zesta puntaren mundua apustueta oinarrituta zegoenez, hauek desagertzean kirola ere desagertzean egon zen, eta garai hartan zeuden frontoi profesional guztiak gaur egun historia dira, zinema edo parking bilakatuta, eta zesta punta bera eta euskal pilota orokorrean historia izango zen pilotazale gutxi batzuen pasioagatik izan ez balitz.

São Pauloko Clube Paulistano tradizionalen gelditzen da Brasilgo azkeneko frontoi handia, 1922an eraikia bere 50x12 metroekin gaur egun arte basamortuan oasi bat bezala dirau pilotari berriak sortuz XXI. mendean baina. Inoiz joko profesionalik izan ez zuelako mantendua izan zen eta bertan, *Marcelo Fernandes* profesional ohiak jokatzeko eta jokalar berriak sortzeko jarraitu zuen bere heriotza arte 1980an. 1954 (Uruguai) eta 1958go (Biarritz) munduko pilota txapelketetan Brasilgo ordezkari bezala aritu zen *Caramururekin*.

Gaur egungo zestalarien artean *Alfredo Soeiro* (Portugal, 1936) dugu, lanbidez psikiatra ezaguna, 37 urte zituela Marcelo berak lagundu zion zesta puntan lehenengo pausoak ematen. Zesta puntaz hitz egiten hasten denean begiak pizten zaizkio, ume baten irrifarrez gogoratzen ditu lehenengo pausoak frontoian:

“Marcelok bahitu ninduen eta gauza arraro hura nire eskuari lotu, nire erregistrotik erabat kanpo zegoen joko hura, pilota ziztu bizian nire inguruan eta ni non jarri ere ez nekiela!” Horrela hasi zen denborarekin pasio bilakatuko zen esperientzia. “Marceloren heriotzarekin zestalariek umezurtz geratu ginen, ez pilotarik, ez xisterarik ... gainera Marcelok inoiz ez zigun kanpoan jokatzerantz irtezera animatu, gure maila baxuagatik edo ...”.

Portugalera egindako bidai batean Donostiaraino inguratu zen Alfredo eta bertan ikertzen hasi zen ea non aurkitu zestalariren bat edo pilota egileren bat.

“Zestalarri gazte bat ezagutu nuen hotelean, bertako andre baten semea, eta biharamunean elkartzeko geratu ginen. Donostiako alde zaharrean, gela batera lagundu zidan eta sartzean gizon batek ongi etorria eman zidan, Munduko Euskal Pilota Federakuntzaren zuzendaria zen, *Jesus Iriondo*. Pentsa dezakezu nire ustekabea nolakoa izan zen!”.

Bere xistera eta pilotez gain hainbat frontoi ezagutzeko aukera izan zuen, jokalarri profesionalak topatu eta batez ere, Brasil berriz ere pilotazale komunitatean sartu zen. Guzti honek haize berriak eman zizkion Paulistanoko frontoi zaharrari eta 1989an, 41 urte ondoren, berriz ere munduko txapelketa batean aurkezteko gonbitea jaso zuten Brasilarrekin.

“Kubako esperientzia izugarria izan zen, egin genuen aurrerapen teknikoa izugarria izan zen eta nahiz eta lehiaketan aukerarik ez izan, Kortaren aurka egindako tanto bakar hura oraindik ere biziki gogoratzen dut. Pasioak bultzatuta joan ginen eta pasioa izan zen balio izan zuena. Ondorengo urteetan aurrerapen handiak egin genituen eta azkeneko txapelketan EEBBren aurka 23 tantora heldu ginen”. Gaur egun Paulistano frontoien 12 bat lagun zesta puntan, 10 bat paleta eta beste hainbestek frontenisen ekiten diote. Gazte gehiago erakartzeko Mexikoko sistemaz baliatzen dira teniseko pilotekin lehenik eta ondoren baseball-ekoekin entrenatzen hasteko oso emaitza onekin.

“Zesta puntaren etorkizuna ziurtatua dago, hazten joango da datozen urteetan, ala ere, pena da beste zesta punta frontoirik ez edukitzea São Paulo edo Brasilen txapelketak antolatzeke gure artean, horrek bizitasun handia emango lioke Brasilgo zestari”.

Pilotaz hitz egitean begiak pizten zaizkion beste bat *Soraya Cuellas* brasildarra da. Urteetan tenislari profesionala izan ondoren, badmintonean ere ekinaldi bat egin eta zesta puntan lagun batek gonbidaturik hasi zen. Egun hartatik, larunbata eta Paulistanoko pilota jokoa (zesta punta, paleta edo frontenisa) sakratua bilakatu da sãopaulotar honen bizitzan. Kubako txapelketan hasi zen frontenisen jokatzeko eta trinketea ere han dastatu zuen, eta ordutik, amets bat: Brasilen Trinkete bat eraiki: “*Trinketeak brasildarren aurpegia dauka: dibertigarria, oso dibertigarria, urte osoan jokatu daiteke, bizkorra, alai ... etorkizuna trinketean dago.*”

Venezuelako azken munduko txapelketan final laurdenetara heldu ziren eta Frantziaren aurka galdu, hau izan da orain arte kirol aldetik Brasilarrekin pilota munduan izandako ondoriorik onena. Emakumeen presentzia da brasildarrekin pilota munduari ekarri dion beste “berrikuntza” bat:

“70 urteetan pilota Federakuntza Internazionalerako bilera batean parte hartu zuen lehengo emakumea izan nintzen, benetan esperientzia izugarria eta niretzako ohore handia”.

Pilotak bere bizitzan suposatzen duenaz galdetuta: “*Bizitza bera da niretzat, pilota bizitza da. Mundu osoan jokatzeko aukera eman dit, bizipen osoa da niretzat, ez kirola bakarrik. Pasio bat!*”.

Alfredo Soeirik berriz: *“persona bakoitzak bere bizipena du, niretzat, jai alaiean ez daukat adinik, denbora gabekoa sentitzen naiz, arduragabe osoa, festa, jokoa ...”*.

2001eko urrian Paulistanoko frontoi zaharrak aspaldian eskatzen zituen berrikuntza lanak amaitu zirenean, pelotari talde honek bizi izan zuen une magikoak urte askotarako indarra eman zion pilotari Brasilen. Frontoia itsura berritua dago, arazo tekniko batzuk ere konpondu dira eta erakarpen askoz ere handiagoa du gazteentzat. Mundu osoan Brasil “o país da bola” bezala ezagutzen da, etorkizunean zergatik ez “o país da pilota”.

### **Getulio Vargasen garaia**

1929ko krisi ekonomikoak izugarritzko zauria eragin zuen Brasildar ekonomian eta honek São Pauloko kafe ekoizleen botere politikoa gutxitu zuen, Minas Gerais eta Rio Grande do Suleko militar liberal eta nazionalisten elkartearena handituz. 1930.go hauteskundeetan liberalen hautagaiak galdu zuenean, militarrek boterea indarrez hartu zuten eta Getulio Vargasi eskuratu zioten Brasilgo lehendakaritza. Giro nahasi honetan Vargasek bere trebezia politiko guztiaren beharra izan zuen eta hurrengo 20 urteetan boterean mantentzea lortu zuen. Bere gizarte sostenguaren zati txiki bat erreforma politikoetatik eta zati handi bat bere demagogia, populismoa eta nazionalismoaren arteko nahasketatik zetorren.

Brasilgo ekonomiak kafe esportazioengan dependentzia osoa zuenez krisi egoera kritiko bat somatzen zen, baina 1933rako ekonomia berriz ere hazten hasi zen honek industrializazioa bultzatuz Vargas presidentearen politikak lagundurik. Beraz, krisi honek industrializazioa bultzatu zuen Vargas presidentearen politikak lagundurik. Krisiarengatik inportazioak murriztu ziren eta barne eskaria handitu zen, horri erantzuteko industriek beren ekoizpena handitu zuten orain kanpoko produktuen konpetentziarik gabe eta ekonomia berriz ere hazten hasi zen.

Hazkuntza industrial honek erakarrira eta dagoeneko sortzen ari zen euskal koloniak lagundurik, hainbat euskaldunek Ameriketarako bidea hartu zuten. Hauen artean: *Balbino Guisasola* eta *Santos Guisasola* berriztarrak. 1915. inguruan heldu ziren eta arma fabrika bat eta São Pauloko erdialdean, Celso Garcia kalean, denda baten sortzaileak izan ziren. *Vitorio Areitio San Miguel* eibartarra eta *Zubizarreta*, biak burdindegí baten jabeak garai berean, kortxo kentzekoak egiten zituzten. *Dora Lucia Alberdi*, *Castelo* arma fabrikaren nagusia, *Jose Maria Lizarriturri* eta bere kidea zen *Bustindui*, eibartarrak, 1928. inguruan heldu ziren eta Brasilgo industrializazioaren hasieran parte hartu zuten *Arrate* izeneko zerra fabrika batekin.

## 5. XX. MENDEAREN ERDIALDEA

Juscelino Kubitschek, JK, presidenteetatik maitatuenetakoa, 1956ean hautatua izan zen. Bere agindupean **Brasilía**, hiriburu berria, eraiki zen Brasilgo barnealdearen kolonizatzeari bultzada izugarri bat emanez. Atzerritar kapitalari ateak zabaldu zizkion industrian inbertsio berriak erakarriz eta auto-industriari hasiera eman zion. 1920 hamarkadan heldu ziren enpresari euskaldunen arrakastak eta egoera ekonomiko arrakastatsuak (batez ere garai hartan Europan bizi zen giroarekin konparaturik) hainbat euskaldunentzat Brasil bere ametsetan jarri zuen. Espainiako Gerra Zibilak ere hainbat iheslari ekarri zuen gerra garaian eta gerra ondoren, nahiz eta Argentina, Uruguai, Mexiko edo Txile gogokoagoak izan.

Horrela, giro horretan, 1950. urte inguruan São Pauloko hirian lehenengo aldiz euskal komunitatea deitu genezakeen zerbait osatu zen: Euskal Herria jatorri zuten giza talde bat, beren burua euskalduntzat jotzen zutenak, elkar ezagutzen zirenak eta elkarrekin jaioterriko zati bat Brasilera ekarri nahi zutenak. Talde honek orain arte Brasilen izan den euskal etxe bakarra, "*Eusko Alkartsuna de São Paulo*", osatzeko kemena izan zuten. Oso jatorri desberdineko euskaldunek osatzen zuen talde hau, enpresari txiki edo beste edozein lanbide dunak, denek zuten ezaugarri komun bezala bere espiritu ekintzailea: etxetik urrun, hizkuntza arrotz bat, herri kultura desberdin bat (nahiz eta brasildarrak oso herri harkorra osatu), azken batean klima eta elikadura desberdin bat, bestelako egoera baten erdian, beren ametsak aurrera ateratzeko gai izan ziren.

Jaioterrian etorkizun iluna ikusten zuten batzuk, besteek Gerra Zibil ondorengo giro sozio-politiko ezin zuten jasan, egoera ekonomikoa Espainian ez zen onenetakoa eta horrek bultzaturik ekin zioten Brasilerako bideari. Garai hartan São Paulora inguratu ziren euskaldunen kopurua asko handitu zen, batzuek, esan bezala, zuzenean Euskal Herritik etorri ziren, beste batzuk berriz Argentina edo Uruguaien zituzten familien bidez Ameriketaraino etorri eta ondoren Brasilera inguratu ziren. Batzuek oraindik Brasilen jarraitzen dute, familiak osatu eta erabat eusko-brasildarturik, beste asko herrira bueltatu ziren aspaldi, baina denek utzi zuten beren marka herri honetan eta denek daramate betirako Brasil eta brasildarren zigilua. Gutxi batzuk aipatzeko hemen zerrrenda:

*José Eizaguirre, Luiz Izquierdo, lehen aipaturiko José Antonio Vergareche eta bere emazte Victoria Maitre Jean, José Ramón Zubizarreta Oteiza, Tolosa, Ricardo Matesanz Aranburu, Gloria Madariaga San Sebastián, Miguel Celaya Zubizarreta eta Milagros Vazquez bere emaztea, Jose Ramon Urraza Ugarriza, Paben Garaizabal Insasti, J. Alberdi, Azurmendi, J. Goialde, G. Jaio, Lopez Zarate, B. Rekalde, J. Ezkiogo, J. Fernandez, A. Artigas, J. Arresegor, Vicente Moreno eta Crucita (errioxarrak) bere emaztea, Ignacio Beotegi Inza eta María Cruz Corres Perez de San Pedro bere emaztea, Victor Salazar, Vicente Murua Etxeberria eta María Dolores Iñarra Orcaizaguirre bere emaztea, Pedro Jayo Bernedo eta Madalena Pita Jayo bere emaztea, José María Sanz Navarro eta*

*Hermenegilda Velasco Matute bere emaztea, Dora Lucia Alberdi, Rafael San José Rodríguez, Elías Echegoyen Tabar, Ángel Orue Pagazaurtundua, José Antonio Trasabares Artigas, Luis Maiztegui Arando, Jesús Alberdi Eguren, José Fernandez, José Ezquioga Iruvano, Domingo Agote Arteaga, José Javier Arresegor Gorriaran, Francisco Alaba, José Antonio Alaba, Luis Maria Echegoyen Roitegui, Jorge Beitia Sepúlveda, Amable Martínez-Conde y Elustondo, Domini Peinado eta Agapito, Antonio Valero Ojeda, Evaristo Martín Sanz, Juan José Lizaso Oronoz, Pedro Jayo Bernedo, Jesús Aguirrebeitia Mendibe eta María Carmen Arenaza Aranburu bere emaztea, Juan José Arrue Urriaga, Víctor Lascurain Ariznabarrena eta Angeles Arizaga bere emaztea.*

Hasiera ez zen erraza izan inorentzat, nahiz eta ordurako euskaldun batzuk izan eta hauek besteei bidea errazteko dena egin. *Víctor Salazar (Barakaldo, 1921)* jaunak kontatzen digun bezala:

“Gerra zibil garaian nik 15 urte nituen eta nahiz eta fusilik hartzerik ez nuen izan bolondres bezala joan nintzen lubakiak zabaltzera. Gerra oso gogorra izan zen eta gogorragoa oraindik gerra ondorengoa galtzailentzat. Nire bizitza berregiten saiatu nintzen gerra zibilaren ondoren, margolari lan batzuek eginez eta ondoren labe garaietan ere ekin nion. 1944an alargundu eta berriz ezkondu nintzen *Elvira Bolodino de Amosarekin*. Gizartearen presioa izugarria zen, egoera jasan ezina eta itogarria egiten zen une askotan, eta bestalde profesionalki ere irtenbide handirik ez zegoenez, 1950ean Brasilen zegoen Elviraren familiarengana ekin genion. Nire iragan abertzaleagatik arazoak izan genituen bisadua lortzeko, baina azkenean Txileko enbaxadaren bitartez Espainiatik irtetzea lortu genuen eta bidai aldrebes baten ondoren Santoseko portura heldu eta handik *Rio Clarora* (São Pauloko estatuan) joan ginen. Bertan geratu ginen 50 urtez.

Brasilen aurkitu genuen bizitzeko eta pertsona bezala hazteko behar genuen askatasuna eta espazioa. Nire enpresa sortzeko aukera izan nuen zentral elektrikoak eraikitzen eta Rio Claroko alkate izateko gonbitea ere jaso nuen”.

*Miguel Celaya Zubizarretak* (Urretxu, 1922) euskara garbian kontatzen digu São Pauloko bere etxean Brasileraino nola heldu zen:

“Etorkizun handirik ez nuen ikusten Euskal Herrian, eta batez ere bizitzan hobetzeko eta hazteko aukera baten bila irten nintzen. Lehenengo Argentinara, bertan izeba bat bai nuen. Han debora motzez egon nintzen, izan ere, Euskal Herrian bezala egoteko hobe bueltatzea! Lagun italiar batekin 1953ko Urrian São Paulora inguratu ginen zer nolako mugimendua zegoen ikusteko eta hiri moderno, erakargarri eta eroso bat aurkitu genuen. Lanbide bezala tornulari nintzen eta garai hartan Brasilgo auto industria sortzen ari zen São Paulon (denborarekin Hego Amerikako gune industrial handiena izango zen -ABC Santo André, São Bernardo, São Caetano- eta ezaguna), beraz ez nuen zailtasun handirik izan lana aurkitzeko. Profesional onen behar handia zegoen garai hartan eta lana barra barra aurkitzen genuen mekanika arloan esperientzia genuenok.

Lagun baten bidez *Ricardo Matesanz* eta *Fabian Garaizabalen* helbidea lortu eta honela ezagutu nuen bere enpresa, *TERMOTEC*, auto industriarako pezak egiten zituzten eta berehala beraiekin hasi nintzen lanean. Denboraldi baten ondoren beste hiru kideekin (*Evaristo Martin Sanz* Bilbotarra, *Juan Antonio Porras Pardo Iturriaga* eta *Juan Francisco Peralza del Hoyo*, biak burgostarrak) *UMBE Metalurgica* osatu genuen auto industriarako pezak eginez, eta hortik aurrera negozioak ederki joan zitzaizkigun, hori bai lana franko egin behar izan genuen, falta ez zena lana zen! Gero, 1963an, kide bat irten zen eta enpresari izena aldatu genion, *KAIKU*, euskaldunagoa, eta gaur arte dirau”.

Nahiz eta italiar ugari emigratu garai berean, euskaldunak elkarrekin lan eta bizitzeko joera zuten, batzuetan espainol, katalan eta gailegoekin ere elkartzen zirelarik. *Ricardo Matesanz Aranbururen* (Tolosa, 1923) Brasilera bidea besteen antzekoa da: Gerra Zibilaren iheslari Frantziara Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin urte batzuetan mekanika proiektuetan lanean ibili ondoren Argentinara joan zen bizi hobea baten bila 1950ean. Denboraldi batean han lan egin ondoren bere lagun Fabian Garaizabalen deia erantzunez, São Paulora inguratu eta *TERMOTEC* osatu zuten elkarrekin. Batera denboraldi bat egin ondoren *Luis Izquierdo* eta *Jose Eizaguirre*ekin *AISOLA* enpresa osatu zuen *Guarulhoseko* hirian.

“José Ramón Zubizarreta beste euskaldun batzuek aurkeztu zidaten, berak sartu zidan buruan Euskal Etxearen proiektua eta honela hasi nintzen “Gernika Kuttunen” sorreran lanean beste euskaldunekin batera. Giro horretan euskalduntasuna lantzeko aukera izan nuen, lehenengo aldiz Parisen Eusko Jaurlaritzako kideak ezagutzearan esnatu zitzaidan sena Brasilera lantzeko aukera izan nuen. Garai hura oso ona izan zen, erabateko elkartasuna genuen denon artean, São Paulok bi miloi biztanle zituen eta bizitzeko toki ederra zen. Gero haurrak jaio ziren eta Euskal Herrira bueltatzeko grina piztu zitzaigun, eta azkenean, 43 urte nituela (1965) berriz ere herrira bueltatu ginen eta bertan “Ipiranga” lantokia sortu nuen Lasarten”.

*Gloria Madariaga San Sebastian* (Durango, 1930), Ricardo Matesanzen emaztea, São Paulora lanera etorri zen ezagun batzuek gonbidatuta:

“São Paulora heldu bezain laster lagun batzuek Ricardo eta Fabián Garaizabal aurkeztu zizkidaten, eta handik sei hilabetera ezkondu ginen! Hasiara batean nahiko zaila egin zitzaidan, izan ere jendea oso desberdina aurkitzen bai nuen, baina pixkanaka ohitzen joan nintzen eta handik alde egin genuenean pena handiz izan zen. Gure lehengo semea São Paulon jaio zen eta *Sabino* jarri genion, *Sabino Aranaren* ohoretan. Medikua berriz, *Alburu* jauna, gasteiztarra zen”.

Euskal sarea handitzen zihoan eta adibidez Ricardo Matesanz berak bere laguna zuen *Jesús Aguirrebeitia Mendibe* (Durango, 1928) arazoetan aurkitu zenean Brasilgo ateak zabaltu zituzten:

“Nire asmoa Porto Alegre (Rio Grande do Sul) joatea zen, bertan apezpikua zen familiarteko bat bai nuen, baina São Paulora heldu nintzenean Ricardok Aizola

lantegian jarri ninduen lanean eta bertan geratu nintzen. Beste denboralditxo bat Termotec enpresan egin ondoren beste euskaldun talde bat aurkitu eta beraiekin lanean iardun nuen urte pare bat, denak eibartarrak ziren, Fabian Garaizabal, *Elorza*, *Egaña* eta *Aleguin*. Denboraldi baten ondoren nire bi koinatu ere Brasilera etorri ziren eta elkarrekin *Industria Metalúrgica Arrate* osatu genuen. Urteak egin genituen familia osoak Brasilen baina azkenean nire alaba izan zen Euskal Herrira bueltatu zena eta gu beraren atzetik, bira osoa bukatzeko!”.

Jesús Carmen Arenazarekin (Beasain 1932) ezkondu da. Beraien alaba *Anabel Aguirrebeitia Arenaza* (1956) euskal sena agertzen duen emakumea da, *Ignacio Iturmendirekin* (1949) ezkondua, bi seme-alaba dituzte. Aguirrebeitia eta Vergarechetarrak bana ezinak izan ziren Aguirrebeitiatarrak Brasilen igarotako urteetan. Beraien arteko atxikimendua benetan erakaragarria eta familiarra.

*Angeles Arizaga* (Placencia de las Armas, 1920) andreak euskara garbian kontatzen digu bere São Pauloko etxean, nola gerra zibilaren ondoren, *Victor Lascurainekin* ezkondu eta José María Lizarrituriren bidez 1954ean nola familia eta guzti São Paulora heldu ziren:

“Lizarriturrik esan zigun bezala Brasilen lana zegoen, eta nire senarrak gerrako arazoetatik lanik aurkitu ezin zuenez denok Brasileko bidea aurkitu genuen. Hemen Lizarriturri zai genuen eta baita ere *Jesus Alberdi* eta *Luis Maiztegui*. Hasiera batean bi urterako etorri ginen, baina ondoren Luisek eta Victorrek *Urko* lantegia sortu zuten (arma fabrika, eskopeta, karabina eta abar) eta hemen gelditu ginen. Familia hazten joan zen, lanik ez zen falta eta bizi kalitatea orain baino askoz ere hobea zena, gainera brasildarrak beti lagundu gintuzten, oso zoriontsu bizi izan gera”.

*Ana María Lascurain*, aurrekoaren alabak naiz eta hasieran arazoak izan hizkuntza eta bizi molde berriarekin gaur egun eusko-brasildar benetakoa da: “*Gaur egun hemen ditut lagunak, Urkon lan egiten dut eta inoiz bueltatzeko indar handirik egin ez dugunez, benetan “brasilduta” nago*”.

*Amable Martínez Conde Eluztondo* jaunak (Beizama, 1923) antzeko bidea egin zuen 1953ean Brasilera heldu zenetik:

“Familia osoa etorri ginen Brasilera bizi hobe baten bila eta azken batean amets baten atzetik. *Juanito Lizaraburu* genuen gure “brasildar” kontaktua eta horrek ikaragarri erraztu zuen gure bizitza. Hasiera batean ostatu bat zabaldu genuen baina laster, autoen industria handitzen zihoala ikusiaz neu ere arlo horretan sartu nintzen. Hasieran ez zen erraza izan baina laster ikasi nuen tornuekin lan egiten eta *Juanito Lizarabururekin* enpresa bat sortu genuen, *Mecánica Exacta* eta ondoren *Mecánica Bilbao* izena zuena. Nahiko diru egin genuen eta geroago Francisco *Álaba* eta *Valero* elkartu zitzaizkigun. Ala ere 1964ean osasun arazo bat izan nuen eta familia osoak Euskadira bueltatzea erabaki zuen. Baina ez zen horrela gertatu, *Autometal* sortu genuen”.

Lizaraburu eta beste batzuekin Euskal Etxearen sorreran parte hartu zuen, euskal komunitatearen indarraren fruitu.

“Brasilen bizi izan genituen urteak bizitza oso bat izan ziren. Gauza onak besterik ez ditut Brasiletaz esateko eta eskertu beti, ezagutu genituen pertsonak eman ziguten laguntzagatik”.

Antzeko historia kontatzen digu *Venancio Recalde* (Oiartzun, 1929):

“Nik albaitaritzatza ikasi nuen eta lanik aurkitzen ez nuenez Brasilerara joateko aukera azaldu zenean ez nuen bitan pentsatu. 1956ean heldu nintzen itsasuntziz 13 eguneko bidai baten ondoren eta lehenengo inpresioa Santoseko portura heltzean ez zen oso ona izan benetan. São Paulora heldu eta han zorionez *Echabeguren* aurkitu nuen. Berak saltzaile bezala lan egiten zuen eta Braseko ostatura eraman ninduen, bertan euskaldun gehiago ezagutu nituen eta gauza hobetzen joan zen. Hasieran hizkuntzarekin arazoak nituelako ez nuen lan oso onik aurkitzen baina denborarekin laborategi batean sartu nintzen. Ondoren mekaniko bezala aritu nintzen eta honela fabrika batean sartu eta bertan 5 urtez egin nuen lan”.

*María de Carmen Gonzalezekin* ezkondu eta alaba bat izan zuten São Paulon.

“Euskaldun asko ezagutu nituen, Fabián Garaizabal, Celaya, Echegoyen, Matesanz, Lizaraburu, José Ramón Zubizarreta, Alaba, Beotegui eta beste asko. Elkarrekin Euskal Etxearen sorreran parte hartu nuen. Brasilen abertzaleagoa egin nintzen nire alderdi euskalduna lantzeko aukera izan nuen, euskaraz ikasi e.a. Euskal Etxearen ideia Brasilerara heltzen ziren euskaldunei laguntza bat emateko gune bat sortzea zen eta era berean lagunak elkartu eta ongi pasatzeko toki bat”.

Euskal “sarea” osatua zegoen eta norbaitek zerbait behar ezkeror laster lortzen zuen beste euskaldunen baten laguntza. Braseko auzoan zegoen ostatuan edo *Mocako Ostatuan* hainbat euskaldun aurkitu ziren edo *Aita Javier Alonsok* (“espainolen apeza”) makina bat euskaldunei lehenengo lana aurkitzen lagundu zien. Apaizen artean euskaldun asko aurkitu genezake, batzuek apezpiku ere izandakoak. *Iñaki Etxezarraga Goikoetxea* (Galdakao 1932) 1966an heldu zen Brasilerara eta Itaquerako hirian urtean egin zituen. 1978an Bilbora bueltatu zen, baina Brasilek bere zigilua utzi du gizon honengan: “*Brasil barruan sartu zait eta ez dut inoiz aterako, etxean sentitzen naiz eta brasilerara sekula galdu ez dudana hizkuntza da. (...) Ez nintzateke naizena izango Brasilen ez banintz bizi*”.

### **“Eusko Alkartasuna de São Paulo” Brasilgo Euskal Etxea**

*“EUSKALDUNEN jatorria oraindik nehorik ez badu aurkitu eta definitu gabe badirau historiaurreko denboretan, aitortu behar da Eusko Alkartasuna de São Paulo Euskal Etxearen jatorria eta izatea ere nehorik gutxiak dakiela”*

Elias Etxegoien Tabar, São Pauloko Euskal Etxeko idazkaria

“Eusko Alkartasuna de São Paulo”ren historiak kapitulu berezi bat merezi du Brasilgo euskaldunen historian, izan ere, lehenengo aldiz euskal komunitateak bere nortasun berezia baieztatu, Brasildarren aurrean aurkezteko borondatea eta



ekintza azaldu zuen. “Euskaldunak gara” aldarrikatzen du ekintza honek, eta borondate horrek bultzatuta 1957an euskaldun talde batek amets hori egi bihurtu zuen. *Arantxa Ugartetxea Arrietak* São Pauloko euskal etxeaz eginiko bere liburuan (“Gernika Kutun, São Paulo-ko Euskal Etxea”, Eusko Ikaskuntza, 1998) askoz ere zehatzago eta sakonago azaltzen ditu gertakari honen xehetasunak.

*José Ramón Zubizarreta Oteiza (Algorta, 1913 – Donostia 1999)* eta *José Antonio Vergareche* jo ditzakegu ekintza honen arima. Bi gizon hauen abertzaletasunak lortu zuen erabateko talde anitza elkartzea eta indar guztiak baturik benetako Euskal Etxe bat osatzea.

*José Ramón Zubizarreta* Brasilera 1953an joan zen estatu espainoleko garai hartako giro itoa ezin jasanik. Atzean geratzen ziren Gerrate zibilean gudari bezala pasatako guneak eta Euskadi askatu baten amets galdua. Abertzale peto petoa, Brasilen euskara ikasteari ihardun zion eta baita ikasi ere! Eta hizkuntzarekin batera euskalduntasuna sakonduz joan zen. Eusko Alderdi Jeltzaleko burukideekin zituen harremanak lantzen jarraitu zuen eta São Pauloko Euskal Etxea Brasilgo euskaldunen erreferentzi bihurtu zuen, atzerrian zegoen Eusko Jaurilaritzarekin hainbat idatzi eta harreman landuz. Benetako gune abertzalea bilakatu zen Euskal Etxea, eta bertan, Joxerramonek, estatu espainolean aurkitzen ez zuen askatasun gune eta euskalduntasuna lantzeko tokia sortu zuen.

Honelaxe kontatzen du nola izan zen hasiera hura:

“Francoren kartzela handitik irten ginenean eta hemen Brasilen elkartu ginenean, 25 bat euskaldunok elkarte bat osatu nahi genuen. Baziren espainiar eta kataluniar elkarteak, baina gure elkarte berezia nahi genuen, gure “batzokia”. AISOLA fabrikan osatu genuen, 1957ko irailaren 7an, “Associação Eusko alkartasuna” elkarte eta egoitzarik ez genuenez bila hasi ginen denon artean. Azkenean São Paulotik 21 kilometrotara aurkitu genuen terrenotxo bat eta denon artean dirua jarri eta horrelaxe eraiki genuen gaur egun Gernika Kuttun dagoen egoitza, frontoi eta guzti. Euskaldunontzat batzokia zen hura, abertzaletasuna sentitzeko gunea, Euskal Herriko berriak komentatu eta gure gisa, euskaldunon arazoak konpontzeko tokia”.

Lehenengo bilera historiko hauetan, José Ramón eta Vergarechez gain Victoria Maitre Jean (Vergarecheren emaztea), Eizagirre, José María Sanz Navarro eta Hermenegilda Velasco Matute ber emaztea, Izquierdo, Miguel Celaya Zubizarreta eta Milagros Vazquez bere emaztea, Vicente Murua Echeverria eta María Dolores Iñarra Orcaizaguirre bere emaztea, Tolosa, Fabián Garaizabal, Alberdi, Lascurain, Azurmendi, Goialde, Agote, Pedro Jayo Bernedo eta María Magdalena Pita bere emaztea, Lopez Zarate, Recalde, Ezquiogo, Fernandez, Artigas, Arresegor eta Santurtun elkartzen ziren, Vicente Moreno, “Piper” eta bere emazte Crucitaren lantegian, Ignacio Beotegi Inza eta bere emazte Mari Cruz Corresen etxean edo Kataluniar elkartean lehen aipatu dudana bezala.

Hain abertzale ez zirenentzat berriz topa gune egokia bihurtu zen Euskal Etxea: frontoia, igeri egiteko tokia, elkarren artean prestatutako jan goxoak dastatu, musean egin, euskal abesti batzuk abestu eta "saudade"ak (herrimina) hiltzeko tokia.

"Elkartea beti Brasildarra izan zen espainiar elkartetik ongi bereizteko, lehendakaria brasildarra zen, Vergareche, eta lehenengo idazkaria *Dora Lucia Alberdi* baita ere, Txiki pelotariaren alaba, Izena ere, Gemika Kuttun, Gemikaren omenez, diktadura fazistaren erresistentziaren sinbolo bat eta brasildarrentzat ezaguna izango zen izen bat aukeratu genuen, eta hau dena gaur egun arte mantendu dugu".

